

ttipi-ttapa

SEGURTASUNA ESKATUZ

Belateko lanek irauten duten bitartean nazioarteko kamioiak debekatzea eskatu dute berriz ere inguruko alkateek / 24



MIKEL URIARTE

Sei herri galdeketaren bidean

Doneztebe, Elgorriaga, Ituren, Zubieta, Donamaria eta Legasan herri-galdeketa egin nahi dute maiatzaren 6an / 10

Baztan Rugby Taldearen gaupasa apirilaren 21ean Larraintzarren / 30



ZOZKETA / 48



UTZITAKO ARGAZKIA

Toki Ona institutuak 50. urteurrena ospatuko du maiatzaren 19an / 8



UTZITAKO ARGAZKIA

Saharako haurrak etxean hartzeko deia egin du Saharaztanek / 24



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Apirilaren 15ean egingen dute Berako Maratoi Erdiaren XIV. edizioa / 38

 <p>berako agenda</p> <p>www.berakoagenda.eus</p> <p>f t</p> <p>Apirila</p> <p>berako agenda</p> <p>Ekitaldien gaineko informazio gehiago: 948 012 012 telefonoan edo www.berakoagenda.eus</p> <p>BERAKO UDALA berako kultur batzordea</p>	<p>06 ORTZIRALEA</p> <p>KONTZERTUA BAS(H)OAN (BENAT ACHIARY, JOSEBA IRAZOKI & JULEN ACHIARY)</p> <p>22:00 Kultur Etxean Sarrera: 10€</p>	<p>21 LARUNBATA</p> <p>BASERRIKO KIROL PARKE TEMATIKOA (KULKI)</p> <p>16:00-19:00 Altzateko pilotalekuan Antolatzailea: Ricardo Baroja eskolako guraso elkartea</p>	<p>28 LARUNBATA</p> <p>ANTZERKIA GATAS (LES FIGURETTES ANTZERKI TALDEA)</p> <p>19:00 Kultur Etxean Iraupena: 90 min Gaztelaniaz Sarrera: 4€ Argibide gehiago: http://lesfiguretes.wix.com/lesfiguretes</p>	
	<p>14 LARUNBATA</p> <p>MERKATUA BERTAKO EKOIZLEEN MERKATUA - HAZIEN EGUNA</p> <p>10:30-13:30 Ricardo Baroja Eskolako arkupeetan</p>	<p>LANGILE BATAILOIAK BERAN</p> <p>ERAKUSKETA ESKLABOTZA FRANKISMOAN: errepiak eta fortifikazioak mendebaldeko Pirinioetan. Panelak ele biz.</p> <p>APIRILAREN 26tik MAIATZAREN 12ra arte Berako Kultur Etxean Ortzegunetik larunbatera: 17:00-19:00 Igaudeetan: 11:30-13:30</p>	<p>28 LARUNBATA</p> <p>AZIENDA FERIA Kiroldegi aitzinean Goizean azienda erakusketa Bertako ekoizleen salmenta Idi proba erakustaldia Bazkaria</p>	
	<p>15 IGANDEA</p> <p>HAURRENTZAKO EMANALDIA ASTONAUTA (ENE KANTAK)</p> <p>18:00 Eztegara Pilotalekuan Prezioa: 6€ Salguneak: Xuga ostatua (Bera) eta Ogiberri (Lesaka) Argibide gehiago: www.enekantak.org Antolatzailea: Ricardo Baroja eskolako guraso elkartea</p>	<p>26 ORTZEGUNA</p> <p>SOLASALDIA Bortxazko lanak eta Pirinioaren fortifikazioa frankismo garaian (Eduarne Beaumont + Fernando Mendiola)</p> <p>Euskaraz 19:00 Beralandetan</p>	<p>BERAKO XIV. MENDI MARATOI ERDIA</p> <p>14 / LARUNBATA: 17:00-19:00 Berako kiroldegian dortsal ematea 19:30 Bideo emanaldia: "Al otro lado de la cuerda" Berako kultur etxean. Sarrera: 3€</p> <p>15 / IGANDEA: 08:30 Bera-Larhun - Bera txangoa, lasterketa ikusteko. 14 kilometro 09:00 Bera-Usategieta-Landagaita-Bera txangoa, lasterketa ikusteko. 10 kilometro 08:00-09:00 Berako kiroldegian dortsal ematea 09:30 Berako Mendi Maratoi Erdiaren irteera 11:10 Irabazlearen ailegatzea guti goiti-beheiti 13:00 Azken sailkatuaren ailegatzea guti goiti-beheiti 13:30 Sari banaketa, zozketa eta luntxa Argibide gehiago: www.mountain.com</p>	
	<p>20 ORTZIRALEA</p> <p>HAURRENTZAKO IPUIN-KONTALARIA: TXANPON BATEN TRUKE (AMELI)</p> <p>18:00 Herri liburutegian</p>	<p>29 IGANDEA</p> <p>TXANGOIA Langileen batailoiek Beran utzitako arrastoak ezagutzeko (Aurelio Gutierrez)</p> <p>Azalpenak gaztelaniaz 09:00 Herriko etxeko plazan Iraupena: 4 h (oinez egitekoa) Ibilbidea: Herriko etxeko plaza - Ihardin - Alzateko plaza</p>		



ALTZARIAK ETA DEKORAZIOA

AMETS

SUKALDEAK NEURRIRA EGITEN DITUGU

MUEBLESAMETS.COM

C/Sastrin 2,3,4 BERA | 948 630 537 | amets@mueblesamets.com



NIRE TXANDA

KORO IRAZOKI

Ama batek zioena

Ama batek kontatua: ortzirale gau batez, ostatu batean izandako borroka bategatik, bere semea (eta bertze batzuk) preso eraman zituzten. Ama honek kontatu zuen bere semeak urte eta erdi daramatzala preso. Preso dagoela etxetik 400 kilometrotara. Preso dagoela eta 20 eta 40 urte bitarteko kartzela eskatzen diotela!

Zer gertatu zen gazte hauei halako tratu gogorra emateko?, Zer pasatu zen borroka hartan? Zein kalte handi izan ziren? Kaltetu bakarra bertze mutiko bat izan zen, zango-lepoa bihurtu baitzuen, bertzerik ez. Afera da gisa horretako 6.900 delitu izan zirela urte hartan (2016an), baina horietatik guztietatik hau izan da presondegira eraman eta hainbertze urtetako kartzela zigorra eskatu duten bakarra. Zergatik? Borroka hartan kaltetutakoa guardia zibil bat izan zelako. Gertakari hau injustizia bat dela bistan da, eta orain eskatzen dena epaiketa bederen justua izatea da. Gazte hauek Altsasukoak dira eta beraiei atxikimendua erakusteko, apirilaren 14rako manifestazioa antolatua dago Iruñean. Ama hark zioena adituz, oilo-larrua jarri zitzaidan, konturatu bainintzen zein erraza den edozein familian halako zerbaite gertatzea. Beharrezkoa da atxikimendua erakustea. Ez dute aunitz eskatzen: justizia bertzerik ez.



EZPALA

AITOR AROTZENA

Hotzikara Belaten

Belateko errepide zaharrean goiti joan naiz igande goizean, bakar-bakarrik. Udaberri (?) hasiera honetan hutsik dago errepidea, txirrindulariren bat, txori kantuak, zaldi-behorrak... Begiak itxi eta egunero 3.900 kamioi ikusi ditut harat-honatean bihurguneetan ezin pasatuz, lainopean, motor burrunba aditu dut... Hotzikara sumatu dut.

NABARMENTZEKOAK



MARIA
GAMIÓ
100 URTEKO



HASIER
LARRETXE
IDAZLEA

Martxoaren 16an ehun urte bete zituen sortzez Iruritako Xamargillenekoa den Maria Gamiok. Elizondoko Zahar Etxean bizi da orain eta han ospatu zuen familiarekin eta Zahar Etxeko langile eta bizilagunekin.

El lenguaje de los bosques izeneko liburua argitaratu du Arraiozko idazleak. Orain arte, poesian murgildu izan bada ere, aldi honetan, Patxi aitaren historia bildu nahi izan du eta basoarekin duen harremanaz aritu da.



2008-04-17 · TTIPI-TTAPA · 468 zk.

BKT Ohorezko Mailara igotzekotan

Baztango Kirol Taldeak hogei urte bete zituen 2008an, eta urte berean, Lehen Maila Nazionalako BKTren taldea Ohorezko Mailara igotzear egon zen. Horren harira, Joxe Iturzaeta talde nagusiko orduko entrenatzailearekin mintzatu zen Ttipi-Ttapa: «lehenago ere aritu izan gara eskubaloian, baina Baztango karrketan inoiz ez da bizi izan orain dagoen giroa», adierazi zuen. Bere hitzetan, «dena lotua da, bai Lehen Mailakoak ongi aritzea, bai eta azpitik heldu direnak gustura aritzea eta taldean gero eta jende gehiago egotea ere. Guretzat arras garrantzitsua da klubera jendea hurbiltzen ari dela ikustea. Baztandarren babesa eta laguntza nabaritzen dugu».



erran.
e.us
Mendialdeko Abistek



Argitaratzailea

Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31700 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea
Nerea Bazterrika
Eneritz Iraola

Publizitatea

Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usua Vicente

Berriemaileak

Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Irune Elizagoien,
Maider Petrirena, Markel Lizasoain,
Fermin Etxekolonea, Fernando
Etxeberria, Mattin Laralde, Juan
Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga
Erdozain, Maitane Maritorea,
Aranxa Iturralde, Aranxa Gamió,
Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo,
Nerea Mortalena, Virginia Oteiza,
Pierre Bastres, Ainhoa Asitz, Ixaso
Arizmendi, Xabier Maritorea,
Maialen Iantzi, Jaione Mindegia,
Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea

Pello Apeztexea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdioko Akelarre elkarte

2018ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	37€
Leitza	24€
Hego Euskal Herria	43€
Ipar Euskal Herria, Europa	77€
Amerika eta Australia	130€

KOLABORAZIOAK

HARITZ MAYOROA SARASUA EHKOLEKTIBOKO KIDEA-BIDAZI

EHKOLEktiboa

Agroekologiak elikadura-sistema iraunkorra garatzea du helburu nagusi. Tokikotasunetik eta ekoizpen eredu ekologikotik abiatuta, baserritarren eta herritarren artean bidezko hartu-emanak bermatzea da bere xedea. Alegia, nekazariak beraien lanagatik (lurra eta ingurumenaren zaintza, paisaiaren kudeaketa, elikagai osasuntsuen ekoizpena...) dagokion saria jasotzea; eta herritarrak ordaintzen duenari dagokion kalitatea eta onurak eskuratzea. Finean, mundu osoko bazterrak kutsatu, jendartea gaixotu, gatazka sozial larriak sortu eta elikaduraren inguruan espekulazioa bultzatu duen nekazaritza globalizatu-industrialari aurre egiten dio agroekologiak, alternatiba argia eta iraunkorra eskainiz.

Agroekologiaren aldeko taldeak mundu osoan zehar ugarituz doaz etengabe. Ekimen horietako bat dugu EHKOLEktiboa, zazpi lurraldeetako nekazari ekologikoak batzeaz gain,

**«EHKOLEKTIBOA
BASERRITAR
EKOLOGIKOEN
SORTU ZUTEN»**

herritar eta erakundeak ere batzen dituen elkarte. Euskal Herrian ekoizpen agroekologikoak nolako izan beharko lukeen definitzeko sortu zuten EHKOLEktiboa baserritar ekologikoen, 2009an. Bidean, nekazaritza ekologikoen alde lan

egiten duten elkarte eta erakundeak ere batu dira.

Hala, ia hamar urteko lanaren ondotik, ezarrita daude ekoizpen-mota bakoitzarentzat bete beharreko baldintza agroekologikoak. Garatua dago baldintza horiek betetzen dituzten etxaldeak identifikatzaileak ere.

Aurtengo neguan, bere XI. topaketak ospatu zituen EHKOK Uztaritzen (Lapurdi). Lurralde guztietatik bertaratu ziren 62 norbanako, kolektiboak 2017an zehar izandako ibilbideaz jarduteko eta 2018rako erronkak finkatzeko.

EHKOKo bortsu kidez osatutako komisioak ebatzen du agroekologiaren baldintzak betetzen diren, eta ondorioz etxaldeak EHKOLEktiboaren identifikatzaileak merezi duen, ala ez. Herritarrek herritarrei emandako bermea da, parte-hartzaile eta gardena. Agroekologia ez dute baserritarrek bakarrik eraikitzen, gizarte osoak baizik. Bidazi elkarteak, bere helburuekin bat eginez, EHKOLEktiboaren kide da. Zazpi Euskal Herriak bat eginda elikadura burujabetzaren bidean.

Informazio gehiago: www.ehkolektiboa.org

ARANTXA GAMIO BORTZIRIETAKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

Banaketak I

Banatzea erabakitzen duten gurasoek argi izan behar dute bikote harremana akitu dela, baina seme-alaba jakin batzuen guraso direnez, bikotekide ohiarekin gutxieneko komunikazioa mantendu beharko dutela.

Seme-alabei gurasoen erabakia jakinaraztean, argi utzi behar zaie banaketaren arrazoiak helduei dagozkiela, bikote-harremana dela akitu dena, ez guraso rola. Helduen arteko harremanari, bizi proiektuari, zailtasunei... loturik hartu dutela bikote izateari uzteko erabakia. Oso garrantzitsua da seme-alabei adieraztea beraiek ez direla erabakiaren arduradun, ez dela beraien errua izan.

Adierazpena egiteko egokia da bi gurasoek aldi berean eta egoera goxo eta lasai batean erratea banatuko direla. Arrazoi adostuak emanez eta berehalakotasunean gertatuko diren aldaketak aurreikusiz: etxea, eskola, ordutegiak, egonaldiak... eta behin-betiko erabakia dela, ilusio faltsurik ez egiteko.

**«ARGI UTZI BEHAR
ZAI E BANAKETA
HELDUEI
DAGOZKIELA»**

Umeek gurasoen erabakiaren aitzinean izan ditzaketen erreakzioak aunitz dira denboran zehar eta adinaren arabera: larritasuna, beldurra, lasaitasuna, tristura, haserrea, kaosa, baztertua, abandonua, estresa, errudun

sentimendua, sintoma psikosomatikoak... Eta aldaketak sumatu daitezke loan, elikaduran, ikasketetan...

Babesa eta ziurtasuna emate aldera komeni da ahal den neurrian haurren eguneroko ohiturekin jarraitzea, aldaketa aunitzetako garaian errutinei, eskolari eta lagunaren harremanei eustea (erreferentzia puntu egonkorra izan dena), eta eskolako irakasleekin banaketa prozesuaz mintzatzea, ikasleen jokabidea ulertu eta laguntze aldera.

Hausturaren ondotik, bikotekide ohiarekin harreman ona eustea ez da erraza, nekeza ere suerta daiteke elkarrekin egon behar izatea, komunikatzea... tentsioak eta eztabaidak edo iraganeko minak berpiztu daitezke, baina guraso ardurak betetzen segitzeko esfortzu hori egin beharra dago.

Gizarte zerbitzuak, hezkuntza edo osasun alorreko profesioetan babesa eskatzen ahal da orientazioa jasotzeko. Familia bitartekaritza zerbitzua ere izan bada. Banaketak mina, galera, egoera berriak, ahultasunak... eragin ditzake eta komeni da norbere burua sendotzeko, indarberritzeko laguntza profesionalak bilatzea. Gure psikologia zerbitzua adibidez (948 63 50 36).

Gaia pertsonen ongizate ikuspegitik aztertu dugu. Baina kontziente gara prozesu judizialek banaketetan presentzia handia dutela eta maiz energia gehiegi borroka judizialean galtzen dela, ongizate pertsonal eta seme-alaben ongizatearen ginetik. Hortaz gomendatzen dugu lehenetsita norbere ongizatean eta seme-alabenean jartzea, borrokan ginetik gutxieneko elkar-ulertze eta errespetua lehenetsiz: guraso betiko izanen garelako.

HEMEROTEKA



«Gure asmoa Euskal Herriko Mus Txapelketako Goizueta-ko kanporaketan partidaren bat irabazi eta, zorte pixka batekin, sariren bat irabaztea zen. Aurreneko 32etan sartzea ikaragarri zaila da (...) Bergarako bikote bat zen, oso jatorra, eta ongi pasatu genuen partidaren zehar. Bukatutakoan, esangien finala irabazi behar zutela, txapelaketa kontratu galduta esan ahal izateko. Eta baita egin ere! (...) Ez dugu musarako ohitura haundirik; gutxitan aritzen gara, eta herrian antolatzen direnetan bakarrik. Baina Euskal Herrikoan egindako paper onaren ondoren, uste dugu gehiagotan animatuko garela».

A. GOIZUETA-I. ESKUDERO
GOIZUETAKO MUSLARIAK
KRONIKA. 2018.03.17

11 GALDERA LABUR

SARA TELLETXEA BERAKO GAZTEA

Nor da Sara Telletxea?

Musikarik gabe bizitzen ez dakien ameslaria; bizitza denak emanda bizitzen duena. **'Kantatzen ez duenak zorionik ez du'...**

Nire kasuan halaxe da (irriz). Kantatzeak aunitz laguntzen du, baina zoriontsu izateko badira mila arrazoi.

Zer da musika zuretzat?

Bizitza. Gidatzeko, dutxatzeko, kanpoan bakarrik oinez ibiltzeko... bidelaguna.

Bago!az saioan zabilta. Nolako esperientzia izaten ari da?

Hagitz polita. Haur Kantari Txapelketa edo jaialdiko 8 urteak gogoratzen dizkit...

Ez da telebistan izaniko esperientzia bakarra...

Kantugiro saioan parte hartu nuen eta Lesakan eta Donostian kantatu nuen. Oholtza gainean kantatzea bezain zaila da kamera aitzinean solastatzea.

Dantzan ere ibiltzen zara...

Sei urte nituela euskal dantzetan hasi nintzen eta zazpirekin Dantza Jazz-en. Orain Sergio Nguemaren & The



Groove Killaz taldean nabil, Victoria Eugenia antzokian bi emanaldi ditugu maiatzean.

Norekin kantatuko zenukeen?

Morgan taldeko Nina abeslariarekin. Bere ahotsa, musika... aunitz gustatzen zaizkit. Alicia Keysekin, Pinkekin edo Beyoncéekin... ere gustura kantatuko nukeen baina utopia bat da.

Zer du Berak bertze herriek ez dutena?

Kirola, musika edo bertzelako zaletasunak garatzeko aukera dezente eskaintzeaz gainera, Iparraldera edo Gipuzkoara joateko erraztasuna da bereziki gustatzen zaidana.

Asteburuko plan hobereena?

Lagunekin bazkaldu, argazkiak atera eta gitarra jotzen badu berarekin kantuan ibiltzea. Biharamunean hondartzan edo mendian lasai egotea.

Berako txoko politena?

Trenbidea edo San Migel zubia. Azken hori leku historikoa da, herritar talde batek berreirikia izateak balioa ematen dio.

Amets bat?

Mundua parekatuagoa izatea: kapitalismoak eragindako interesez, gerra eta arazoak bukatzea eta enpatia gehiago izatea. Amets pertsonala, artista izatea eta hortik bizitzea.

GOITI ETA BEHEITI



UTZITAKO ARGAZKIA

Zaborra behar ez den tokian...

Leitzako Udalak 600 euroko gastua egin du eremu hori garbitzen. Baina nonbait, batzuei ez zaie garbi gelditu hor ez dela zaborrik bota behar. Garbitu eta berehala zaborra azaltzen hasi da...

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
abokatu
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

BERA
KATEA BIKE

BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA
GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK
bizikleta estatikoak, lasterketako zintak...

2. eskuko bizikletak

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

ORBEA CONDA SCOTT BH TREK MERIDA



IRAKURLEAK MINTZO

Zer da generoa?

AINARA MAYA URROZ

Zalantzek barne-tsunami eragiten didate ene gorputz zehaztugabe eta kaotiko honen barneko ur betezko ozeanoan, eta genero-ikasketek ez naute erakartzen. Izan ere, zer da genero-indarkeria edo zertaz ari gara generoaz ari garenean? Gizartea bitan zatitzea? Zail egiten zait hori egitea, batez ere euskaraz ari naizelarik, euskaraz ez baitago generorik. Azken urteotako esaldia EZ DA EZ litzateke gure 'gizarte' honetan, hainbat eta hainbat gertaera tragikoren ondorioz; 'jendarte' ere erran nezakeen, baina gizarte hitza neuk behinik behin ez dut gizonarekin soilik lotzen, pertsona-multzo baten gisa hartzen dut. Izan ere, zer da gizon edo emakume izatea? Arazo guztien iturria pertsona etiketatetik eta dena bitan zatitu behararen gaitz patologikotik datorrelakoan nago. Eskemak apurtu behar dira, baita feminismoan ere, batez ere feminismoan dugu giltza emetasunez bustiz hazi ar baztertzailea. Nire artasuna eta emetasuna barneratzen dator aterabidea korapilo honetan, bizitza honetan hartzea eta ematea funtsezkoa baitira edozein harreman sanoetan. Emakumeok 'ez' erran arren, ez da erraten ezetz, eta orduan gizonezko batzuek BAI soilik entzuten dute. Beharbada pertsona anitzen multzo hau aldatzen hasi nahi badugu, hizkera aldatu behar dugu, eta slogan edo leloak eraldatu, geu aldatuz ingurukoa aldatzeko. Adibidez, herri euskaldun aunitzetako sarreratan 'Herri honetan ez da eraso sexistarik onartzen' irakurri

dut; eta bertzelako erasoak bai, onartzen ditugu? Hori da ene zalantza. Badakit gaur egun dugun arazo larri itsu eta gorra gizon batzuek emakume batzueganako bortizkeria irrazionala dela, baina ez dakit halako lelo eta esaldi ezkorrek zerbaitetan laguntzen duten. Bertzelako lelo batzuk beharbada eraginkorragoak izan daitezke, hala nola 'herri honetan elkarrenganako errespetuaren alde gaude' edo 'herri honetan tratu onaren alde gaude'. Halako lelo baikor berritzaileak sustatu beharko genituzke, benetan mundu hau hobetzeko, aldatzeko. Izan ere, oroitzen naiz ETA erakunde armatua indarrean zegoen garaian, hainbat udaletxetan 'ETA EZ' jartzen zuela, eta orduan burura etortzen zitzaidan hitz bakarra ETA zen; ni

poETA izanik, proETA baten aldeko jarrera hartzera bultzatzen ote ninduen lelo horrek?

Txantxak alde batera, eta burua erabiliz, ekiteko eta sortzeko garaia dugu, nahiz eta eskuak loturik ditugun. Hala ere, GURE ESKU DAGO egiten dugun guztiaren emaitza, gure esku baitago hitzak erabiltzea eta hitzak isiltzea. Gure esku dago ozen eta irmo erratea zer nahi dugun eta zer ez dugun nahi, eta gure esku dago bitartekoak jartzea herri oso baten nahia betetzeko, baina horretarako moldeak aldatu behar ditugu, eta ekiteko erak birplanteatu. Gure esku dagoen gauza bakarra da, beharbada, gutxienez egunero jaiki eta irribarre batez gure helburuen nahiz ametsen gibeletik abiatzea, errealtatea biziz eta ametsak konplitzeko bidea eginez. Irribarrearen iraultza susta dezagun, bada. Aurtengo nire esaldia honako hau da: EZINA EKINEZ EGINA; ezaren bidez baietza sortuz, beharbada, eta 'bai' eta 'ez' hitzen artean 'agian' baten edo batzuen ñabardurak egon daitezkeela ohartzea. Ni PERTSONA bat naizen aldetik, gizarte honi egin diezaiokedan ekarpena honakoa da: neure hainbat tasunetik, maskulinitasunaren bidez gain, femininitasuna hartzea, eta emetasunez busti dezadan hazi arra, gizarte ederra loratzeko eta fruituak emateko. Beste mundu bat posible delako, eta emetasunaren bidetik, egiteko beste modu bat badelako, eta ez delako zilegi gizartea gizon eta emakume artean soilik banatzea tartean hainbat ñabardura egonik. Artez eta moldez beste modu batzuk asmatu behar ditugu, sormenez beterik.

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA
info@ttipi.eus



948 63 54 58

**PERTSONA BAKOITZAREN ATZEAN ISTORIO BAT DAGO.
AURREAN, ASKOZ GEHIAGO EGON DAITEZKE.**



Egun, nagusitzea nork bere burua zaintzea, aktibatzea eta berriro maitemintzea da. Ezagutzea da, eskubidez hitz egitea, amets berriak eraikitzea...

ADINEKOAK POSITIBOAN



Enkarni Peña, 2010az geroztik, Toki Ona ikastetxeko zuzendaria da. UTZITAKO ARGAZKIA

«I(ra)kas-prozesuaren erdigunea ikaslea da»

ENKARNI PEÑA TOKI ONA IKASTETXEKO ZUZENDARIA

Berrogeita hamar urtez ibilbide luze bezain oparoa egin du Toki Ona ikastetxeak. Mende erdiz egindako lana «lau haizetara zabaltzeko» asmoz, aurtengo ikasturtean ekitaldiak antolatutako dituzte

NEREA BAZTERRIKA BERA

Toki Ona ikastetxeak 1967an, 36 ikasle eta lau irakaslerekin ireki zituen ateak. Egun, 510 gazte hezten dihardute, gizarteak halabeharrez eraginen dizkien erronkei aurre egiteko beharrezkoak dituzten jakintza eta balioak helaraziz. Ibilbide luze bezain oparoa egin dute, garaian garaiko behar eta helburuetara egokituz. Mende erdia badelako ospatzeko aitzakia, heldu den maiztaren 19an egingen dute ospakizun handia.

50 urte, eguneroko lanaren erakusle...

Halaxe da, 1967az geroztik Toki Ona Bortzirietako gazteen erreferente-akademikoa izan da. Lan luzea bezain oparoaren isla dira urte horiek, bereziki, Luis Aizpuru, Jose Mari

Irazoki, Jose Antonio Irazoki eta Maria Jesús Astondoari, ikastetxearen sorreran aitzindari izan zirenei, zor dieguna. Hogeita hamasei ikasle, lau irakasle eta bi langile izan ziren hasierako urteetan. Areago, sorrera hartan, diotenez, lau irakasle horiek, Bortzirietako herrietan barna ibili ziren, matrikulatzeko aukera herriartengana zabaltzen. Horretarako, apaizekin solastatu omen ziren, mezetan horren berri emateko eskatuz. Azpi-

«KOMUNITATEKO KIDEEKIN BATERA, MUNDU ZABALEKO ALDAKETEI BEGIRA, EGITEN DUGU LAN»

marragarria da horiek eginiko lana. Gaur egun, gure Hezkuntza Proiektua ez da horrela zabaltzen. Ez gara ikasleen bila joaten. Orientazio bilerak egiten dira, familia eta ikasleek ikastetxearen helburu, metodologia, antolakuntza, erronkak... zein diren jakin dezaten. **Ikasle kopurua izugarri hazi da...**

Momentu honetan, 12-22 urte bitarteko 510 ikasle ditugu. Urte horietan guztietan, artxiboko datuei erreparatuz, 4.038 ikasle eta 603 langile

«IKASTETXEAREN 50 URTEOTAN 4.038 IKASLE ETA 603 LANGILE IBILI DIRA»

(irakasle eta irakasleak ez diren gainerako langileak barne) ibili dira.

Hezkuntza-eskaintzari dagokionez, zertan da garapena?

Hasiera hartan Ofizialeko Eskola bezala sortu zen eta mekanika zen espezialitatea. Une hartan, industriak izaniko garapena tarteko, enpresetan langile gaituak behar zituzten. Behar hori asebetez, ikasleak lan munduan sartzeko trebatzea zen helburu nagusia; eta pixkanaka, elektrizitatea, enpresen administrazioa eta osasun alorreko espezialitateei ekin zieten. Noski, klaseak gaztelaraz eskaintzen ziren orduan. 1985tik 1988ra bitartean Ofizialia izatetik Lanbide Heziketa eskola izatera pasatu zen. 1994-1995 ikasturtean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eskaintzen hasi ginen. Gaur egun, Batxilergoa eta Lanbide Heziketan zenbait gradu ere eskaintzen dira. Batxilergoan bi ibilbide ditugu aukeran: batetik, Osasun Zientziak eta Zientzia edo Ingenieritza eta Teknologiariko dagoak; eta bertetik, Humanitate eta Gizarte Zientziekin lotua. Lanbide Heziketan, berriz, erdi mailako zikloan Mantenu Elektromekanikoa; eta goi mailakoan Mekanika eskaintzen ditugu, euskaraz.

I(ka)rakas-prozesuaz haraindi, zein dira eskaintzen dituzuen zerbitzuak?

Kalitateko hezkuntzaren harira, ikastetxeak zerbitzu batzuk ziurtatu behar ditu. Gurean, garraio-zerbitzua aipa genezake. Zerbitzu hori ikastetxea sortu zenetik eskaintzen dugu. Egun, Guraso Elkarteari eta antolatzen dugun moduari esker, ikasle guztiek dute zerbitzua: Baztan, Malerreka edota Bortzirietatik etortzeko erraztasuna izan dezaten. 1978-1979 ikasturtean ikastetxeak egoitza ere bazuen. Hori itxi zenetik, jantoki-zerbitzua ere bertan behera utzi zen. Hala ere, Ricardo Baroja ikastetxe-koek irakasle, ikasle eta gainerako langileei beren jantokian bazkaltzeko aukera eskaintzen digute.

Egun, zein da helburu nagusia?

Kalitateko hezkuntza integrala eskaintzea, ikasleak, bai jakintza zientifikoak, intelektualak, praktikoak... eskuratuz bai eta bakoitzak behar dituen baloreak barneratuz (eta oinarrizko gaitasunak jorratuz) ere, ongi trebatzeko. Horrela, gizarte aldakorak eragiten dituen erronkei aurre egiteko gaitu nahi ditugu, gizartea eraldatuko eta hobetuko duten etorkizuneko herritarrak heziz. Era berean, gure helburua hagitx pragmatikoa da. Ikasleek nota onak ateratzea nahi dugu, titulatzeko, Lanbide Heziketan eta unibertsitatean sartzeko, mundu honetan beharko dituzten hizkuntzak (euskara, gaztelera, ingelesa eta frantsesa) menperatuz.

Helburuak asebetetzera bidean, metodologian emaniko aurrerapausoak zertan dira?

Informazio eta Komunikazio Teknologiei dagozkienak dira errotiko aldaketaren seinale direnak. Hasiara hartan idazmakinak, irrati-kasetak... erabiltzen ziren. Egun, helburuei eta, oro har, Hezkuntza Proiektuari hertsiki loturik, IKTek eskaintzen dizkiguten aukerak gelaritzearekin batera, saioen izaera ere aldatu da. Oro har,



1979an administrazio-ikasketetan zebilen ikasle-taldea. UTZITAKO ARGAZKIA

teoriko-praktikoak dira eta unitateak garatzeko metodologia aunitz erabiltzen dira: Proiektuetan Oinarritutako Irakaskuntza, arazoaren ebazpena... Talde-lana dugu ardatz. **Etengabeko formakuntzan diharduzue...**

Irakasle on formakuntzak Urteko Hobekuntza Planean oinarrituta zehazten ditugu. Aurtengo ikasturtean, bereziki, klaseetako lan-giroa hobetzea izan dugu helburu. Ho-

rretarako, Mindfulness teknika ezagutu eta praktikan jarri dugu. Era berean, metodologia berritzaileei tarte egin nahi izan diegu. Horretarako, gure metodologiak bertze ikastetxetakoekin alderatu ditugu. Hala, gaitasun handiko ikasleekin beren talentua garatzeko eta zailtasunak dituztenekin horiei aurre egiteko lanildoak zehazteari eta Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua garatzeari ekin diogu. I(ra)

kas-prozesuaren erdigunea ikaslea da, eta hortik abiatzen gara gaitasunak garatu edota zailtasunak hobetzeko.

2015ean ikastetxe bikainaren aitortpena jaso zutenen.

Bai, ez da jaso dugun aitortpen bakarra, baina bai hagitx inportantea. Kalitate-sarean parte hartzen dugu, eta horrek, kalitatezko hezkuntza bermatzeko aldera, irakaskuntza-ikas-kuntza proiektuak zehaztuak eta eguneratuak izatea eskaintzen du. Ikastetxe bikainaren aitortpena lortzeko, ikuskaritzak pasatzen ditugu.

50. urtebetetzean kandelak itzaltzeko ekitaldiei begira ari zarete?

Bai, noski. Maiatzaren 19an izanen da egun handia. Ikastetxearen erakusketa bat jarriko dugu, ikasleek eginiko lanak plazaratzeko. Pilota partidak ere izanen dira eta Ricardo Baroja ikastetxeako frontoian bazkaria izanen dugu. Apirilaren 27an, berriz, ospakizun instituzionala egingen dugu. Hezkuntza Saileko agintariak, ez ezik, Nafarroako Zuzendarien Batzordea, Bortzirietako eskoletako zuzendari eta orientatzaileak, alkateak... etorriko dira. Gure ikastetxeak 50 urteotan eginiko lana lau haizetara zabaltzea nahi genuke.

«Talde lanaren garrantziaz jabetu naiz»

ENKARNI PEÑA TOKI ONA IKASTETXEKO ZUZENDARIA

Noiz hasi zinen hezkuntzan lanean?

Duela 17 urte, Martzillan. Lekarozen eta Elizondon ibili ondotik, Toki Onara etorri nintzen. Gero, Tuteran ere izan nintzen, baina berriz bueltatu eta hemen jarraitzen dut.

Zein da Toki Onaren berezitasuna?

Institutu euskalduna, berritzailea izateaz gainera, hezkuntza-komunitateko kideekin harremanak

eraikiz eta munduko aldaketei begira dihardu.

Noiz sartu zinen zuzendaritza-taldean?

2008-2009 ikasturtean, Jose Mari Irazokirekin, zuzendariorde karguan. 2010ean Zuzendaritza Proiektua aurkeztu genuen eta onartu zenetik, zuzendari naiz.

Zein dira zure ardurak ikastetxean?

Ekintza guztiak zuzendu eta koordinatzea,

berrikuntzak sustatzea, bizikidetzak bultzatzea, planak diseinatzea, familiarekin eta instituzioekin harremanak eraiki eta koordinatzea...

Zein izan dira lan horren ekarpenak?

Talde lana baloratzen irakatsi dit: bai ikastetxean (denoi esker lortzen dira helburuak), bai eta Bortzirietan ere (Hezkuntza Proiektua zuzendari eta orientatzaileek elkarrekin lantzen dugu). Familien laguntza eta esker on eta konfiantzak ezinegonak arindu eta esperantzaz betetzen naute.



Otsailaren 24an hasi ziren herri-galdeketa egiteko behar diren sinadurak biltzen. Bi hilabeteko epea izanen dute guttienerako sinadura kopurua biltzeko. AUNITZ ESKUETAN

Bertze sei herritan abian da galdeketa

Doneztebe, Elgorriaga, Ituren, Zubieta, Donamaria eta Legasan herri-galdeketa egin nahi dute eta horretarako, herri bakoitzean guttienerako sinadura kopurua bildu beharko dute apirilaren 24a baino lehen

G.PIKABEA DONEZTEBE

Maiatzaren 6ra begira daude Malerrekan eta Bertizaranan; egun haundia izatea nahi dutelako, herritarrek herriaren etorkizunaren inguruan erabakitze aukera izanen duten eguna. Hautetsontziak mahaie-tan paratu nahi dituzte, herritarren eskura, iritzia edozein dela ere, botoa emateko aukera izan dezaten.

Ez da horrelako zerbait egingen den lehenbiziko aldia: Euskal Herrian, dagoeneko, 760.000 herritarrek izan dute erabakitze eskubidea. Joan den urteko ekainaren 18an, erraterako, eskualdeko bederatzi herritan egin zuten herri-galdeketa. Bortzirietan 1.914 lagunek eta Leitza, Goizueta, Areso eta Aranon 1.579 herritarrek eman zuten botoa. Egun horretan Nafarroako 24 uda-

lerritan egin zuten galdeketa. Maiatzaren 6an, bide horri segida eman nahi diete Malerreka eta Bertizaranako sei herritan: Doneztebe, Elgorriaga, Ituren, Zubieta, Legasa eta Donamarian. Ez dira bakarrak izanen; Nafarroako, Bizkaiko eta Arabako bertze herri batzuetan ere egun berean egin nahi dute galdeketa.

Dena behar bezala atera dadin, buru-belarri lanean ari da Aunitz Eskuetan elkarteak. Hamar bat kide dira guztiaren gidari: Maialen Belarra (Doneztebe), Oier Zulaika (Do-

HAMAR BAT LAGUNEN TALDEA ARI DA GUZTIA GIDATZEN

neztebe), Lide Zinkunegi (Doneztebe), Bittori Mendiburu (Doneztebe), Josu Irurueta (Elgorriaga), Koro Ibarra (Legasa), Unai Gonzalez (Legasa), Kleofe Goñi (Donamaria), Ines Gereka (Zubieta), Mikel Olazar (Ituren) eta Belen Azpiroz (Ituren). Baina garbi utzi dute elkarteak atea zabalik dituela, nahi duten guztiek parte hartzen ahal dutela.

Ez dira atzo hasiak lanean. Horiatarako batzuk 2014az gerortik ari dira; gerora bildu dira taldera bertzeak. Hasiera batean, galdeketa 2017ko udaz-

APIRILAREN 24RA ARTEKO EPEA DUTE SINADURAK BILTZEKO

kenean egitekoa zuten; baina azkenean, udaberri honetan egingen dute. Bitarte horretan, ordea, ez dira geldirik egon: kamisetak saldu dituzte, bideoak egin, bizikleta martxa Doneztebetik Bertizera, mahai-ingurua Gure Esku Dago eta ANCko kideekin, haurrendako ekitaldiak, frontenis txapelketa, bertso-afaria, herriz herriko bestetan eta ferietan parte hartu dute... Horrez gainera, Estu & Larri musika taldeak espresuki 'Aunitz eskuetan' kanta ere egin zuten. Denetariko ekitaldiak izan dira, adin guztietako jendeari zuzendutakoak: «batzuk arrakastatsuak izan dira, bertzeak ez hainbertze», diete elkarteek.

Sinadura biltzea

Herri-galdeketa egin ahal izateko guttienerako sinadura kopurua bildu behar dela dio legediak. Herrian errolatuak dauden 16 urtetik goitikoekin sinadurak behar dira, gerora horiek izanen direlako botoa ematen ahalko dutenak. Donezteben, guttienez, %10ak sinatu behar du, hau da, 144 sinadura behar dituzte galdeketa egiteko. Gainerako herrietan, guttienez %15ak sinatu beharko du herri-galdeketa egin ahal izateko: Elgorria-

gan 31 sinadura behar dituzte, Iturenen 65 sinadura, Zubietan 37, Donamarian 55 eta Legasan 31. Aunitz Eskuetan elkartekoek aitortu digutenez, «erronka haundiena Donezteben izanen dugu».

Otsailaren 24an hasi ziren sinadurak biltzen eta apirilaren 24a bitarteko epea izanen dute kopuru minimoa jasotzeko. Herri batzuetan sinadurak biltzeko egunak ere zehaztu dituzte: Donezteben ortzegunero sinadurak biltzen dituzte, Azkarretan, 20:00etan. Zubietan, berriz, apirilaren 15ean sinadurak biltzen ariko dira. Donamarian, apirilaren 13an eta 14an ekitaldiak presatatu dituzte: apirilaren 13an, talo tailerra, trikitilarien kalejira eta mus txapelketa izanen dituzte eta biharamunean, mendi itzulia, herri bazkaria, poteoa eta haurrendako jokoak. Bi egunetan sinadurak biltzen ariko dira. Iturenen ere asteburu horretan egin dute hitzordua: apirilaren 15ean, eguerdian, poteoa egingen dute musikariek eta arratsaldean mus txapelketa antolatu dute. Eguerditik aitzinera egun osoan sinatzeko aukera izanen da.

Ezjakintasunaren eta beldurraren gainetik

Hainbat sentsibilitatetako herritarrengana hurbildu nahi dute eta horretarako lanean ari dira Aunitz Eskuetan elkartekoak. Onartu digutenez, jendearen artean ezjakintasuna eta kezka sumatu dituzte; «batzuk bertzeek erranen dutenaren beldur» daudela diote. Horrez gainera, «hasieran, jende gaztea ez zen sobera inguratu», erran digute. Hala ere, antolatzen ari diren ekitaldiei esker, «jendearen gana hurbiltzen» ari direla uste

dute: «ekitaldien bitartez, mezua zabaltzen ari gara, kuriositatea plazaratzen. Gazteak ere hurbildu dira eta horrela segitzea nahiko genuke».

Oraindik ez dute galdera erabakia, baina horretarako hitzordua finkatu dute: apirilaren 13an erabakiko dute, Elgorriagako ostuan, 19:00etan. Nahi duenak parte hartzen ahal izanen du. Aunitz Eskuetan elkartearen arabera, galdera eta iritzia edozein direla ere, parte hartzea da garrantzitsua: «erantzuna baiezkoa ala ezezkoa izan, erantzuna ez da inporta dena; kontua eskubide hori aitzinera ateratzea da eta parte hartzea». Gisa honetara euren tokia bilatu nahi dute: «Euskal Herriko hainbat tokitan herri-galdeketak egin ondotik, guk ere gure txokoa bilatu eta hemen gaudela erakutsi behar dugu, gure etorkizunaren jabe izan nahi dugula adierazi. Beldurrak kendu eta erabakitze aukera probestu behar dugu. Kataluniara joan gabe, hemen ere etorkizuna erabakitzen ahal dugu».

Beraien hitzetan, «behetik goitidoan prozesua da. Hemen, inork ez du erranen zer egin behar dugun; denon artean erabakiko duguzer nahi dugun. Gure ustez, lehenbiziko erabakia gure etorkizunaren jabe egitea da eta helburua bide hori garatzea da». Garbi dute «ariketa demokratiko bat» dela, «herritar bezala kontuan hartuak izan gaitezene gure iritzia ematea da helburua». Izan ere, diotenez, «herritarren hitza, aunitzetan baztertua da, eta herri-galdeketak zer nahi dugun plazaratzen hasteko aukera ematen du, bakoitzak berea defendatzeko aukera».

GALDERA PROZESU IREKI BATEN BIDEZ LASTER ERABAKIKO DUTE

IRITZIA EDOZEIN DELA ERE, PARTE HARTZEA NAHI DUTE

Maiatzaren 6ra begira



Emakumezkoetan lehen lau postuetan sailkatutakoak. AUNITZ ESKUETAN

Frontenis txapelketa jendetsua. 45 bikotek parte hartu duten Aunitz Eskuetan elkartek antolatutako frontenis txapelketa. Martxoaren 17an jokatu zituzten finalak.



Mahai-ingurua Donezteben. AUNITZ ESKUETAN

Mahai-ingurua. Gure Esku Dagoko Anjel Oiarbide, ANCKo Begotxu Olaizola eta Silvia Formenti eta Eskozian bozkatu zuen Imanol Ibarrola doneztebarrarekin mahai-inguru jendetsua egin zuten azaroaren 4an.



Bizikleta martxa ibili zirenak Bertizko Natur Parkean. AUNITZ ESKUETAN

Bizikleta martxa. Urriaren 14an erabakitze eskubidearen aldeko bizikleta martxa egin antolatu zuen Aunitz Eskuetan elkartek Doneztebetik Bertizera eta buelta. Haur eta guraso andana elkartu ziren.



Lesakako Irain eskolako ikasleak Boc'rollarekin. UTZITAKO ARGAZKIA

Hamaiketakoa eramateko banatu dituzte Boc'rollak

Ikastetxeetan urtero egiten diren hondakinen inguruko tailerrekin batera banatu ditu Mankomunitateak

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Mankomunitateak, Nafarroan Hondakinen Prebentziorako hartzen ari diren neurrien baitan, eta Nafarroako Hondakinen Partzuergoko diru-laguntzarekin, ikastetxeetan sortzen diren plastiko eta aluminio paper hondakinak saihesteko Boc'n rollak banatu ditu Lehen Hezkuntzako 2., 3. eta 4. mailetakoa ikasleen artean.

Kanpainaren helburu nagusia hondakinak sortzearen arazoei buruzko gogoeta eragitea eta ogitartekoa edo hamaiketakoa prestatzerakoan

haukontutan hartzea da. «Gure eguneroko ohiturek eragin handia dute hondakinen sorreran eta horrelako bilduki berrerabilgarriak edo tupperrak erabiltzeko ohitura hartuz gero, sortutako hondakin kopurua aunitz murrizten ahal dugu», diote Mankomunitateak.

EGUNEROKOAN SORTZEN DITUGUN HONDAKINAK MURRIZ DAITEZKE

Aurten 300 banatu dira

Boc'n rolla oihalezko bildukia da, plastikozko geruza eta belkroz egindako itxitura duena, behin eta berriz garbitzen ahal dena. Hamaiketako edo ogitartekoak biltzeko egokitzen da eta edozein tokira eramaten ahal da: eskolara, plazara, parkera, mendira, hondartzara... Aurten, 300 bat Boc'n roll banatu dituzte Bortzirietan. Mankomunitateak diotenez, «kolore gorrikoak egin ditugu eta berriki aurkeztu den Jasangarritasunaren Sareko logoa daramate, baita Bortzirietako Mankomunitateko eta Nafarroako Hondakinen Partzuergoko logoak ere».

Beraien irudiko, «horrelako ekintzek erakusten digute gure egunerokoan sortzen ditugun hondakinak aunitz murrizten ahal ditugula, eta ekintza tiki-ekin gainera, daramagun bizimodua aldatu gabe». Gainera, ikasleekin landuta garrantzi handiagoa dutela uste dute: «orain ingurumenarekiko ohitura jasangarriak hartzea lortzen badugu etorkizunearan horrela jokatu dute-lako eta orain guk baino hondakin guttiago sortuko dituztelako, hauen inpaktua eta sortzen dituzten arazoak guttitzu».

Horregatik, Mankomunitateak eskatu nahi diete, «bai ikastetxeetako arduradunei baita gurasoei ere, kanpaina honekin laguntzea eta hemendik aitzinera Boc'n rollak erabiltzea».

Haur Garapenaren XII. Jardunaldiak apirilaren 21ean Lesakan

TTIPI-TTAPA LESAKA

Bortzirietako haur garapen jardunaldien hamabigarren edizioa egingen dute apirilaren 21ean, Lesakako Udalararen Erabilera Anitzeko Aretoan. Lesakako Osasun Zentroak, Lesakako Udalararen, Guztioak elkartearen, ANAren Nafarroako Autismo Elkartearen eta La Caixaren Gizarte Ekintzaren laguntzaz antolatu ditu jardunaldiak.

Egitaraua

Egitarauari dagokionez, apirilaren 21ean, larunbatean, 09:00etatik 10:00etara haurtzaroan Bortzirietan dauden baliabideen eta zerbitzuen berri emanen dute Belen Compains pediatriak, Guztioak, Anfas eta ASPACE elkarrekin. 10:00etatik 11:30era espektro autistaren desorekari buruzko solasaldia eskainiko du ANA elkarrekin Amaia Arizek. Atseñaldia ondotik, 12:00etan, ANA eskaintzen duen udako eskolaz ariko da Amaia Ariz bera.

Parte-hartzea doakoa da, baina aitzinetik izena eman behar da Bortzirietako Osasun Zentroan edo herrietako mediku kontsultetan edo bcompaib@cfnavarra.es helbide elektronikoan.

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa

Itzea 1, behea • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

logurak
www.logurak.com

gauko konfort-kuxina

Centro Prim **regina tolosaechepare**



Eztegara pilotalekua araudira egokitzeko lanen azken fasea egingen dute.

Zenbait lanen obra proiektua eta finantza onartuak

Agerrako hornidura eta saneamendua, Musika Eskolako igogailua eta Eztegara pilotalekuko lanen hirugarren fasea

TTIPI-TTAPA

2017-2019 Inbertsio Planean sartuak dauden zenbait lanen obra proiektua eta finantza plana onartu zituen aho batez udalak martxoaren 14an egingako batzarrean. Berez, lanak heldu den urtean hastekoak dira, baina epeak betetzeko onespene hauek egin ditu

Agerra auzoko ur-hornidura eta saneamendu sarearen proiekturako diruzaintzako gerakinetik 78.415,02 euro bideratuko ditu Udalak, 35.000 euro libreki erabaki beharrekoaz eta Toki Inbertsioen Planari dagokion diru-ekarpenaz gain. Ur-hornidura sarea berri eta euri-urak eta ur-zikinak bereiziko dituen lan hauen inbertsio osoa 457.440,60 eurokoa izanen da. Nafarroako Gobernuak 264.635,06 euro jarriko ditu eta Udalak 192.805,54 euro.

Musika Eskolako irisgarritasuna hobetzeko hesi arkitetkonikoa kentzeko inbertsioa finantzatzeko 21.634,28 euroko diru-ekarpena onartu du Udalak. Musika Eskolan igogailua jartzeko inbertsio osoa 51.328,40 eurokoa da, beraz, 29.694,12 euro Gobernuak jarriko ditu.

Komunak eta ostatua berrituko dituzte Eztegaran

Eztegara pilotalekua araudira egokitzeko lanen hirugarren fasea finantzatzeko 84.384 euroko diru-ekarpena onartu du Udalak. Inbertsio osoa 200.296 eurokoa da. Nafarroako Gobernuak gainerako 115.822 euro jarriko ditu. Orain arte egin diren lanak osatzeko, Eztegara pilotalekuan larrialdietarako elementuak, komunak eta ostatua berrituko dituzte hirugarren fase honetan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Toki Onaren 50. urteurreneko hitzaldiak

Toki Ona institutuaren 50. urteurrenaren harira ikasle eta irakasle ohien solasaldiak hasi dira. Martxoaren 16an 1967-1987 ikasturtetakoak aritu ziren (argazkian), martxoaren 23an 1987-2007 urtekoen txanda izan zen eta apirilaren 13an, 2007-2017koak izanen dira, Beralandetan, 18:00etan.

Bas(h)oan kontzertuan larunbatean

Beñat Achiaryk, Joseba Irazo-kik eta Julen Achiary musikariren *Bas(h)oan* diska aurkezteko kontzertua egingen dute apirilaren 6an, larunbatean, 22:00etan Kultur Etxean (sarrerara 10 euro). Robbie Basho (1940-1986) musikariaren lana plazaratu dute diska honetan.

Bertako ekoizleen merkatua eta Hazien Eguna hilaren 14an

Bertako ekoizleen merkatua egingen dute apirilaren 14an, larunbatean 10:30etik 13:30era Ricardo Baroja eskolako arkupeetan. Aldi honetan, gainera, Hazien Eguna ere izanen da eta hortaz, bertako haziak eramateko eta elkartrukatzeko aukera izanen da.

Ene Kantak-en Astonauta apirilaren 15ean

Ricardo Baroja eskolako Guraso Elkarrekin antolatuta, *Astonauta* (Ene Kantak) haurrentzako emanaldia eskainiko dute hilaren 15ean, igandean, 18:00etan Eztegara pilotalekuan. Sarrerak sei eurotan salgai daude Xuga ostatuan eta Lesakako Ogiberrin.

Mukixu haur eskolako kontratua urtebete luzatu dute

Mukixu haur eskola kudeatzeko zerbitzua urtebetez luzatuko du Udalak. Egingako azken luzapena 2018ko abuztuaren 31 artekoa da, eta Udalaren asmoa Mukixu Jangarriak SL enpresarekin duen kontratuarekin segitzea denez, urtebeteko luzapena onartu du.

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTOAK
DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMENDUAK
T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

DESIN BERA

MARITX

- INGENIARITZA ELEKTRIKOA
- PROIEKTU ELEKTRIKOAK
- BOLETIN INDUSTRIA
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) **636 617 450** Legia, 23 - BERA

158.490 euroko aurrekontua onartu du Beti Gaztek

1.227 bazkide ditu, inoizko kopururik handiena eta 469 fitxa federatu ditu hainbat kiroletan

AITOR AROTZENA

Beti Gazte elkarteak urteko ohiko batzarra egin zuen martxoaren 17an. Joan den urteko akta irakurri eta onartu ondotik, iazko kontuak eta ekitaldiak eta 2018rako prestatuak dituzten ekitaldiak eta aurrekontua aztertu zituzten. Aurtengo aurrekontua 158.490 eurokoa izanen da eta ekitaldiei dagokienez, urteroko arruntak dira gehienak. Hala ere, aipatzekoa da aurten Lesakako Mendi Itzuliaren XIV. edizioa antolatuko duela. Horretaz gain, lehenago egiten zen krosa berriz ere antolatzeko asmoa dute aurten. Auzolan taldeak Gardelkopagoetako eta Elutxako iturriak konpondu eta Olazarko errekan bi zubi egin gogo dituzte bertz lanen artean eta Olenzteroren inguruan herria girotu eta lehiaketa berrantolatzeko bidea ere egin nahi dute.

1.227 bazkide

Bazkideen kuotei dagokienez, aurten bere horretan mantenduko dira eta zuzendaritza batzordean ere ez da aldake-



Beti Gazte futbolean. AITOR AROTZENA

ta handirik eta Jose Luis Sun-sundegik segituko du presidente. Inoiz izan duen bazkide kopururik handiena du Beti Gaztek gaur egun, 1.227 bazkide, iaz baino 36 gehiago: 7 urtetik beheitikoak 23; infantilak (8-13 urte) 106; jubenilak (14-17 urte) 77; helduak 851 eta 65 urtetik goitikoak 171.

Kirol arloan, futbolak mugitzen du kirolari gehien, 196 jokalaria eta 23 tekniko baitaude hamaika taldetan banatuak; mendian ere 185 federatu ditu Beti Gaztek, sokatiran 26 fitxa gizon eta emakumeen artean, 26 txirrindulari federatu eta bertze bederatzi master mailakoak Transbidasoa-Euro-master-Inñurrieta taldean eta triatlloi taldea (lau kirolari).

Lesakako Gazte Eguna ekintzaz bete dator apirilaren 7an

A. AROTZENA

Buruztanka Gaztetxeak Gazte Eguna antolatu du apirilaren 7rako. Larunbatean, 09:00etan gosaria egingen dute Buruztanka Gaztetxean. 10:30ean Buruztanka konpartsa abiatuko da gaztetxetik. 11:00etan ginkana egingen dute plazan.

12:30ean sukaldaritza lehiaketa; 14:30ean bazkaria; 17:00etan Olinpiadak; 19:30ean Elektropoteoa Polekelekerekin; 22:00etan Ziribulio Sound System Koxkilan izanen da eta gauerditik aitzinera, DJ Bakilla Arranon. Mozorroak agertzeko deia egin dute.



RAFAEL ENETERREAGA

III. Haur kantari topaketa elizan

Azken bi urteetan egin duten moduan, Imanol Elizasurekin batera emanaldi berezia egin dute Bortzirietako eta Baztango haur kantariak. Martxoaren 24an, San Martin elizan Haur Kantarien III. Topaketa eskaini zuten 170 bat abeslari ttikik. Zaria koru eskola izan da aurtengo abesbatza gonbidatua.

Afari mexikarra Irubiden Txamukos taldearen eskutik

Txamukos taldearen eskutik, Irubide jatetxean afari mexikarra antolatu dute apirilaren 21ean (21:00etan). Erreserbak 948 637127 edo 646 242687 telefonoetan egin daiteke (30 euro). Menuari dagokionez, urdaiazpikoa, foie, vieira, le-gatza, entrekota, postrea, kafea, kubata eta edateko, ura, ardoa edo sagardoa aukeran. Otorduaz gain, noski, taldean zenbait musikari aldatu berri dituen Txamukos mariatxien doinuak kantatzeko eta dantzatzeko aukera izanen dute bertarutzen direnek.

Sanferminetako kartela eta azala aukeratzeko egunak

Aurtengo sanferminetarako kartel, portada eta gibe-leko azal lehiaketara lanak aurkezteko epea bukatu ondotik, aurkeztutako lanen erakusketan egiten ari dira martxoaren 29tik apirilaren 8ra Turismo Bulegoan (Beheko Plaza, 5). Bozkatzeko aukera ere izanen da bertan. Kartel eta portada lehiaketara launa lan aurkeztu dituzte eta gibe-leko azal-rako 130 lan aurkeztu dituzte LHko ikasleek. Hilaren 4tik 7ra (10:00-14:00 eta 16:00-19:00) eta 8an (10:00-14:00) irekiko dute erakusketa.



Gure Kultura
EKIALDEKO MASAJEAK

ESPRES MASAJEA
15 minutuz kendu lepo, sorbalda, bizkar eta gerrialdeko minak 10 euroren truke

MINDFULNEESS jarduerak
Luzaketak, erlaxazio...

Bitirria plaza 8
LESAKA
T. 677 606 292



Bortzirietako XVII. Txapelketa irabazi dute bi herritarrek

Markel Iratzokik, aurrebenjamin mailan, eta Xabier Telletxeak, kadete mailan, lortu dute garaipena

IRUNE ELIZAGOIEN

Bortzirietako banakako XVII. pilota txapelketako finalak herrian jokatu ziren martxoaren 17an. Bi herritarrek lortu zuten finalerako sailkatzea eta batak zein bertzeak garaipena lortu dute. Markel Iratzokik, aurrebenjamin mailan, 18-8 irabazi zion Berako Ekiotz Iratzokiri. Xabier Telletxeak, berriz, kadete mailako garaipen ikurrak bereganatu zituen, Jon Pagola beratarra mendean hartuz. Iñigo Martinez eta Jon Jaunarena pilotariek eta Ander Errandoneak, pilotari profesional izanak, banatu zizkieten garaipen-ikurrak.

Etxalarko zortzi pilotari ibili dira txapelketa honetan: Maddi Martinez, Julene Danboriena, Markel Etxarte, Kol-do Bizente, Joseba Telletxea eta Lander Lasaga. Azken biak



Txapela eta kopa eman dizkiete.

finalerdietaraino ailegatu dira, infantil eta kadete mailan, hurrenez hurren. Orain, ekainera bitarte, Altxatak antolatuturiko VII. Udaberriko txapelketan ariko dira guztiak.

Lerro hauen bidez, oro har herritarrek, eta bereziki parte-hartzaileek, eskerrak eman nahi dizkiete txapelketa horiek aitzinera ateratzeko laguntzen duten boluntario guztiei, bai eta gogotsu lan egiten duten entzenatzaileei ere.



PATXI MORENO

Martxoko mendi-itzulia herrian izan dute

Arkupeak Elkarteko kideek hilabetero egiten dute mendi itzulia. Martxokoa Etxalarren egin zuten. Euriari aurre egin eta 40 lagun bildu ziren. Urritzokietan barna pasatu ziren, eta Gorospilera ere igo ziren. Ondotik, 50 lagun inguru elkartu ziren La Basque jatetxean bazkaltzeko.



ARANTXA BIZENTE

San Jose Zurginaren Kofradia

Martxoaren 25ean San Jose Zurginaren Kofradiko kideek, urteko kuota ordaindu bidenabar, hamaiketako egin zuten Elutsa ostatuan. Urteroko ohiturari eutsiz, hildako bazkideen aldeko meza egin zuten. Urtez urte bazkide kopurua izugarri hazten ari da, elkarteak segida baduen seinale.



XABAT ZAPIRAIN

Miranda de Ebroko zirkuituan herritarrak

Etxalarko hamar gaztek Miranda de Ebroko kotxe zirkuituan parte hartu zuten martxoaren 25ean. Herritik lau BMW eta R5 bat joan ziren eta zirkuituak duen kilometro bat pasatzeko ibilbideaz gozatzeko aukera izan zuten. Orain kotxeak hurrengo batean parte hartzeko moldatuko dituzte.

Denok Bat
Hemen erabili
kattagorria
LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com

IRU-BIDE
OSTATU • JATETXEA
Arratzubi Kalea 3
31770 LESAKA
T. 948 63 71 27

USOA
Nekazari kooperatiba

- Pentu ekologikoak
- Kalefakzio eta ibilgailuendako gasolioa
- FORZECAN ZAKUR ETA KATUENDAKO PENTSUA

T. 948 635 214 ETXALAR



Harritik Hazia antzerkia, tartean Aitziber Almandoz herritarra. UTZITAKO ARGAZKIA

Harritik Hazia antzezlan egingen dute maiatzean

Oroimen historikoan oinarritutako antzerkian emakumeak dira protagonistak

NEREA ALTZURI

Joan den uztailaren 21ean, 22an eta 23an, oroimen historikoan oinarritutako *Harritik Hazia* herri-antzezlan taularatu zuten Berako Kultur Etxean. Haur, gazte eta helduen antzerkilari talde bat bildu eta 1936an Beran gertatutakoaz antzezlan bat prestatu zuten, gerrari buruzko gogoetak sortuz, eta historia liburuetatik kanpo utzitako emakumei protagonismoa emanez. Eki- men arrakastatsua izan zen, hiru egunetan jendetza bildu baitzen Beran antzerkia ikusterako.

Heldu den maiatzean, herrian eta Atarrabian berriz ere ikusteko aukera izanen da antzerki hori: maiatzaren 12an egingen dute Arantzian.

Lantalde handia du herri-antzerki honek gibelean, eta tartean bada aranztar bat: Aitziber Almandoz Larralde aktore lanetan aritu da.

Bertzetik, aipatu, *Harritik Hazia* esperientziatik Emakumeen Oroimen Zelaia egitasmoa sortzeko lehenbiziko pausuak eman dituztela, hau da, emakumeen istorioak biltzeko eta trukatzeko lanean ari direla.

44 lagun sagardotegian izan dira

Eguraldiak sobera lagundu ez bazuen ere, martxoaren 24an 44 lagun sagardotegian izan ziren. Autobusez joan ziren eta Astigarragako Artola sagardotegian bazkaldu ondotik, Hernani aldean ibili ziren. 03:00etan hartu zuten etxerako autobusa.

Arantzako Dantza ikasteko saioak larunbatetan

Arantzako Dantza ikasteko saioek aitzinera segitzen dute. Martxoan hiru saio egin zituzten eta apirilean bertze lau egingen dituzte: hilaren 7an, 14an, 21ean eta 28an. 1. mailatik goitik neska-mutil kuadrilla elkartzen da larunbatetan, 11:00etatik 12:00etara.

Aurten ez dute mendi lasterketarik egingen

Han eta hemen, ekainaren 17an Arantzako III. Mendi Lasterketa egitekoa zela zabaldu bada ere, azkenean aurten ez egitea erabaki du Ekaitza Elkarteak; mendi lasterketa heldu den urtean egitea pentsatu du. Bertzalde, aitzinetik iragarri bezala, Ekaitza Elkarteak berak bi urtetik behin antolatzen duen mendi itzulua maiatzaren 20an egingen da. 30 bat kilometro eta 1.800 metroko malda izaten ditu mendi itzuliak eta aurtengoa hamaseigarren edizioa izanen da.

Herritarren parte-hartze prozesuak aitzinera

Martxoaren 1ean, herritarren parte-hartze prozesuko lehenbiziko saioa egin zuten eskolan. Egungo araudiak hobeki ulertzeko Udal Plan Orokor bat zertan datzan azaldu zuten: atalak, kontzeptu garrantzitsuenak... Aitzineko planetik aldatu daitezkeen gauzak eta aldatu ezin direnak ongi ulertzeko argibideak eman zituzten. Saio horri buruzko informazio osotua www.arantza.eusen irakur daiteke. Geroztik, talde motorra martxoaren 22an bildu zen. Hurrengo hitzordua apirilaren 12an da.



ENEO SARRIAS

Gaztetxoak auzolanean

Betitik izan da herrian auzolanerako ohitura eta aldi honetan, inork deus erran gabe, argazkiko laukotea izan da auzolanean ibili dena. Duela aste batzuk, parkearen azpiko aldean zaborrak biltzen aritu ziren Oier, Eneko, Asier eta Xabi. Behar ez ziren tokian botatuko gauza aunitz bildu zituzten...

XAGU LIBURUDENDA

Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBik EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

Elizatea guziz eraberritu nahi du Udalbatzak

Eskolan sortutako handitze beharra eta La Villa jatetxe eta ostatuaren egokitzapena aldi berean konpondu nahi ditu

TTIPI-TTAPA

Azken urte hauetan eskolan sortutako handitze beharra, alde batetik, eta La Villa jatetxe eta ostatuaren nahitahariek egokitzapena, bertetik, izan dira Udala Elizatea guziz eraberritzeko pausuak ematera eramaten dutenak. Bi arazoak, bakoitza bere aldetik moldatzen saiatuak ziren lehendik, baina azkenean hagitzez egokiagoa iduritu zaie aipatu dugun bidea jorratzea. Ostatu eta jatetxea bere horretan moldatzeko aurrekontua garesti samarra iduritzeaz gain, benetako arazoa berriz ere erabat moldatu gabe geldituko lirakeela pentsatu dute. Azkenean, etxea barrendik hustutzearen aldeko erabakia hartu eta arazoak behinbetiko moldatzera bideratu dituzte indarrak.

Biltoki elkartearen egoitza Elizatera eramateko proposamena

Bide batez, eskolari leku arazoa moldatzeko eranskin gehiago paratu gabe, proposamena luzatu diote Biltoki



Elizatea. OSKAR TXOPERENA

elkarteari: euren egoitza Elizateara eramatea, berritzelanak egin ondotik bertan izanen den lekua aprobetxatuz. Udalaren proposamenari erantzun bat emateko lehen hausnarketak egiten ari da orain elkarteak. Pentsatzekoa da azken erantzuna bazkide guzientzako artean egindako batzar batetik aterako dela. Biltokik orain dituen aretoak eskolak hartuko lituzke modu horretara, bere erabilerarako egokitzeko.

Oraindik gaia hasierako fasean dagoenez, ez dago xehetasun gehiagorik aipatzerik, baina Udalbatzaren asmoa irmoa da, Herriko Etxea dagoen egoeran, guziz bideragarria iduritzen zaie proiektua.



UTZITAKO ARGAZKIA

Aroa Canabal txapeldun kenpo kai-n

Guadalajaran jokaturako Espainiako Txapelketan urrezko domina eskuratu du Aroa Canabalek, junior mailako borroka modalitatean. Txapelketa bikaina osatu zuen Merkatenekoak eta finalean Irati Matelo oiartzuar gaztea garaitu behar izan zuen domina eskuratzeko.



UTZITAKO ARGAZKIA

Igantzi txapeldun Herri Kirol Jokoetan

Kimu edo alebin mailako proba konbinatuan Nafarroako Herri Kirol Jokoetako txapeldun suertatu da argazkian ageri den taldea. Lau jardunaldietatik hirutan nagusitu ziren (bertzean bigarren izan ziren) eta Lekarozen martxoaren 25ean jokaturako finalean ere garaile izan ziren.

LABE ZAR
Astelehenetik ortziralerara: 07:15etik aitzinera
Larunbata eta igandea: 08:00etatik aitzinera
948 631 076 • BERA

Anterola
Tekniko instalatzailea
ITURGINTZA • GASA KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak & Gremioen koordinazioa
629 449 602

KSAT
TELEKOMUNIKAZIOAK
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA
T. 637 40 86 40 • 31780 BERA • andonimatxako@gmail.com

- ▶ TDT instalazioak
- ▶ TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- ▶ Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- ▶ Satelite bidezko interneta
- ▶ Internet konexio simetriko ultralastera

LARRALDEA eta LINDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Telleria auzoa • LEKAROZ | 948 452121 • 626 494317
LINDURRENBORDA | Nabaz auzoa • LESAKA | 948 637212



Mus txapelketako lau bikote onenak. ENEKO HERRERA

Giro ederrean joan da aurten ere Asteburu Kulturala

Gazta lehiaketako lehen saria Xanti Espelosinek irabazi du aurten ere eta Jose Miguel Zelaietak lortu zuen zarea

MAIDER PETRIRENA

Giro ederra izan zen Aste Santuaren aitzineko Asteburu Kulturalan.

Ortziralean haurrek jokoez eta txokolate gozoaz gozatzeko aukera izan zuten. Horrez gain Ulibeltzak elkartearen *Ganberroak* monologoa eta afari autogestionatua izan ziren.

Larunbatean ibilaldiarekin hasi zuten goiza, baina ibilbidez aldatu zuten. Gutti batzuk elkartu baziren ere bueltaxka egin ondoren Ulibeltzak elkartearen bazkaldu zuten. Arratsaldean, berriz, bederatzi bikotek musean jokatzeko aukera izan zuten eta hamahirulagunek, berriz, txintxonean. Ondorengoak izan ziren sailkapenak: Musean lehendabizikoak Agurtzane Zubietaria Maria Sarratea, bigarrena Mikel Arrieta-Josu Apeztegia, hirugarrenak Enaitz Portu-Erik Gartzia eta laugarrenak Julen Juankorena-Eneko Herrera. Txintxonean, berriz, txapel-duna Iker Urroz; bigarrena Juana Mari Agirre; eta hirugarrena Teresita Agirre izan ziren. Haurrendako jokoak eta txokolatea ere izan ziren.

Santi Espelosinek irabazi zuen gazta lehiaketa

Igandean XI. artisau feria eta gazta lehiaketa egin zen. Goizean 10etik 14ak bitarte eta arratsaldean 16:30tik 19:30 bitarte 33 artisauen lan izugarriak ikusteko aukera izan zen. Horien artean aipatzekoa da herriko talogileak lan ederra egin zutela bertze urte batez. Horrez gain, zarea eder baten zozketarako mila zozketa-txartel saldu ziren. Zozketa egin zen eta Jose Miguel Zelaieta izan zen irabazlea. Gazta lehiaketara aurkeztutako gazta erdi guztiak ere zozketatu zituzten. Zazpi gazta zeuden aurten lehian eta irabazlea, aitzineko urte batzuetan bezala, Xanti Espelosin gazta izan zen. Bigarrena Koro eta Migelitok egindako gazta eta hirugarren saria berriz Pixarneko bordara joan zen. Zorionak denei.

Goiz partean, eguraldi txarra zela eta, herriko dantzarien emanaldia frontoian egin zen. Saio ederra eskaini zuten. Lerro hauen bidez parte-hartzaileak eta irakasleak eskertu nahi dira, egindako lanarengatik.



MIKEL CHIVITE

Ariztigaingo VI. Kantu Zaharren Bazkaria

Martxoaren 17an Ariztigain kanpian VI. Kantu Zaharren Bazkaria ospatu zuten. Aurtizko joaldunen eta trikitilari talde baten soinuen sorpresa izan zen eta ondoren bazkari eder bat. Arratsaldea kantuan eta dantzan ibili ondotik, afari gozo batez gozatzeko aukera izan zuten bertaratutako 83 lagunek.

Herriko txistulariak bikain ibili dira Hernanin

Txistulari txapelketa izan zen martxoaren 24an Hernanin. 9-12 urte arteko Egoi Irigoien Arretxea eta Markel Agesta Hernandorena aritu ziren. Maila handia zegoen baina halere hirugarren postua lortu zuen Egoiek.



ESTITXU ARRETXEKA



ENEKO HERRERA

Gazteak Oianume sagardotegian

Martxoaren 10ean herriko gazteak Urrietako Oianume sagardotegira txotx egitera eta egun eder bat pasatzera joan ziren. Ederki bazkaldu ondotik, argazkia atera zuten eta bistakoa da giro ederra izan zutela, bai bazkarian baita bazkalondoan ere.



Apirilaren 21ean kinto bestak izanen dituzte. UTZITAKO ARGAZKIA

Apirileko agenda ekitaldiz betea eta anitza

Guztien gustuei tarte eginez, haur, gazte eta helduek gozamenerako bitartekoak izanen dituzte

MARGA ERDOZAIN

Aitzineko hilabeteetarako bezalatsu, apirilera ere hitzordu garrantzitsuak bezain anitzak aurreikusi dituzte. Bertzeak bertze, Aste Santuko oporren ondotik gozamenak jarrai dezan, apirilaren 8an zinema emanaldia izanen dute, Erreka Guraso Elkartearen eskutik. Ipuinen txokoak ere ttikienen belarriak goxatu eta irudimenak martxan paratzeko bide emanen du, apirilaren 10, 17 eta 24ko saioetan. Bien bitartean, Malerrekako gazteek Kinto Bestak izanen dituzte, apirilaren 21ean. Aunitz Donezteben elkartuko dira, bertze aunitz inguruko herrietan; baina gauean, gehienek, Doneztebe izanen dute topagune.

Magia emanaldia

Berrikuntza nagusia Oliber Magoaren emanaldiak ekarriko du, apirilaren 22an. 18:00etan elkartuko dira, zinema aretoan. Dohainik izanen da sarrera eta adin guztietako herritarrei luzatu zaie balio magikoen ikuskizuna ikustera joateko gonbidapena.

Liburuaren Eguneko ospakizunak

Apirilaren 23an ospatuko den Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira, bertzeak bertze, Haur Eskolako ttikiak San Migel ikastetxeko ikasleendako *Do re mi* ikuskizuna prestatzen ari dira. Buru-belarri ari dira lanean apirilaren 23ko ikuskizuna prestatzen.

Mendaur institutuko ikasleek, berriz, Fernando Anbustegi ipuin-kontalariaren eskutik, *Pentsatzeko ipuinak* emanaldiaz gozatzeko parada izanen dute, apirilaren 23an eta 24an. Ekitaldi bera, publiko helduari bideratua, apirilaren 27an, ortziraletan, izanen da entzungai, 20:00etan, herriko liburutegian.

Photoshop ikastaroa

Udalak argazkiak editatzen ikasteko *Photoshop* ikastaroa antolatu du. Lau saio izanen dira, ortziraletan: apirilaren 20an, 27an, maiatzaren 4an eta 11n, zehazki; eta Herriko Ostatuan elkartuko dira. Osotara zortzi orduko ikastaroa izanen da. Iñaki Atxa eta Josu Intziarte izanen dira irakasle.

Zine-emanaldien denboraldia laster bukatuko da

Sei hilabetez hainbat izan dira Erreka Gurako Elkarteak, Udalaren laguntzaz, Doneztebeko zineman eskaini dituen filmak. Batzuk haurrendako eta bertzeak helduendako izan dira, batzuk gazteleraz, eta bertzeak euskaraz. Oro har, jende aunitz sarturatu da. Baina, udaberrian sarturik, apirilaren 28an izanen dute azken emanaldia. Hortik aurrera eguraldi onaz gozatzeko aukera izanen dutelakoan, heldu zen udazkenara bitarte ez dute bertze emanaldirik eskainiko, oihala jautsita izanen dute.

Herriko besten antolaketa-lanak martxan dira

Aurtengo ekaineko San Pedro bestetarako hilabete batzuk falta badira ere, dagoeneko antolaketa-lanekin hasiak dira herrian. Bertzeak bertze, programa atontzen ari dira. Horretaz gain, bestak iragartzeko kartel lehiaketa ere antolatu dute. Lerro hauek idazterako orduan hainbat kontu lotzeke zeudenez, hurrengo zenbakian emanen da lehiaketan parte hartzeko oinarrien eta bertzelako xehetasunen berri. Aitzineko urteetan bezala, aurtenera ere, eskoletan lehiaketa egingen da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Aurten jaiotako hurrei ongi etorria

Xabier, Nahia, Harek, Adam, Israe, Ander, Ander, Izaro, Galder, Maddi, Emma, Julen, Saioa, Andrei, Nahiane, Noa, Unax, Maddi eta Eneritz dira 2017an herrian jaiotako umeak. Ohikoa denez, herritarrek ongi etorria eta Bordablankan zuhaitzak landatu dituzte. Zorte on eta ongi etorri!



Construcciones
URBALLO, S.L.
hargin lanak orokorrean

Eskatu
aurrekontua
konpromisorik
gabe!





- 30 urteko esperientzia
- Eraikuntza berriak eta zaharberritzeak
- Teilatuetan esperientzia handiko profesionalak
- Obra txikiak nahiz handiak: Etxebizitzak, nabeak, zangak, ur lanak, ukuliluak...

Luis Gaztelu, 6 | 31730 IRURITA | T. 610 367 000 / 610 367 009
c.urballo@hotmail.com

Herri-galdeketa harira, ekitaldiak izanen dituzte

Herri-galdeketa sinadura bilketaren bueltan hainbat ekitaldi izanen dituzte herrian apirilaren 15ean

ARKAITZ MINDEGIA

Maiatzaren 6an herri-galdeketa egin ahal izateko herrian erroldaturiko biztanleriaren %15aren sinadurak bilduak behar dituzte apirilaren 24aren aitzinetik. Hori horrela, Iturengo herritarrek, apirilaren 15ean, igandean, herriko plazan, sinadurak biltzeko mahaia paratuko dute.

Eguerditik arratsaldera bitarte izanen da sinatzeko aukera; eta azaltzerik ez izanagatik, sinatu nahi duenak gerora ere aukera izanen du; udaletxean utziko dute papera, guztien eskura. Herriko errolda aintzat hartuz, herri-galdeketa aitzinera atera ahal izateko, guttienez, 65 sinadura bildu beharko dituzte.

Sinadura bilketaren bueltan, ekitaldiak izanen dira herrian. Eguerdiaren, sinadurak biltzeko



Musikariek iragarriko dute bilketa.

mahaia irekitzearekin batera, Mendaur Trikitixa Eskolako Ikasleen eskutik, trikitixa eta pandereta soinuaren arrimuan pintxo-potean ibiliko dira, Tresenean eta Herriko Ostatuan.

17:00etarako, berriz, Herriko Ostatuan, mus txapelketa antolatu dute. Jokalariek egunean bertan, txapelketa hasi aitzinetik, eman beharko dute izena (bikoteko 10 euro ordaindu beharko dituzte).



UTZITAKO ARGAZKIA

Herritarrek txapeldunorde frontenisean

Martxoaren 17an jokatu ziren Aunitz Eskuetan taldeak antolaturiko frontenis txapelketako finalak. Emakumezkoek dagokienez, Maria Larretxea eta Maider Goñi herritarrek txapeldunorde izan ziren. Esther Iriarte eta Alazne Aizpuruk lortu zuten garapena, 30-22 irabazi zieten.

Presoak babestera joateko autobusa paratu nahi dute

Herritarrek izaniko azken bilkuran Iruñean apirilaren 14an Altsasuko presoaren alde eginen den manifestaldira joateko autobusa jartzeko ideia mahairatu zuten. Aitzitik, antolatu aitzinetik, ingurukoei galdetuz, beteko litzatekeen aztertu nahi dute.

Herritarrek ederki ibili dira Bardoak finalean

Joan den martxoaren 24an ospatu zen Bardoak ekimeneko finalean Leitzako Aldatzea komeni eta Lesakako Unibertsolariekin batera Malerreka-ko Addams familiaren doinuak izan ziren entzungai. Leitzako taldea nagusitu da umorez betetako saioan.

Herritarrek Udal Hirigintza Plana egin ahal izateko galdetegia eskuragarri dute

ARKAITZ MINDEGIA

Iturengo Udalak Udal Hirigintza Plana egiteko herritarren parte-hartzea eskatu du, izengabeko galdetegi bat betetzeko deia eginez. Galdetegia Udaleko web horrian dago, herritarren eskura eta erantzunak helarazteko *udala@*

ituren.eus helbidera idatzi, ohiko postaz bidali edo eskura aurkez daiteke. Galdetegiak apirilaren 30a, astelehena, bitarte jasoko dira. Parte-hartze prozesua aitzinera eramateko bilerak ere eginen dituzte, aurrez zehaztutako egun eta orduetan.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Joaldunak Sunbillan eta Bergaran

Udaberri usainarekin batera, joare hotsa hedatzen hasia da han eta hemen. Aurtizko joaldunak bai Sunbillako Kantu Zaharren Bazkarian, bai eta Bergarako Ferian ere ibili dira. Giro ederra izan dute batean zein bertzean. Laster herrietako besten aitzakian toki gehiago bisitatuko dituzte.

Herriko Ostatua errentan emateko lehiaketa egin dute

Udalak ostatu eta jatetxe zerbitzuaren urteko errentaren hasierako prezioa euro batean paratu du

FERMIN ETXEKOLONEA

Udalak, osoko bilkuran, Herriko Ostatua errentan emateko lehiaketa publikoa egitea erabaki du. Kale Nagusian dagoen Herriko Ostatuan ostatu eta jatetxe zerbitzuaren urteko errentaren hasierako prezioa euro batean (BEZik gabe) paratu du.

Errentaren iraupena bi urtekoa da, kontratua behin betiko onesten den datatik kontatzen hasita eta gehiago luzatzeko aukerarekin. Eskaintzak apirilaren 12ko 11:00 bitarte aurkeztu beharko dira. Lehiaketan ustiapen proiektua eta eskaintza ekonomikoa (gehienez ere 20 puntu); ostalaritzan izan duen esperientzia (gehienez 15 puntu); herritarra izatea (gehienez 15 puntu); ostatu edo jatetxe zerbitzuez gaitasun eskainiko di-



Errentaren iraupena bi urtekoa da.

tuen zerbitzu osagarriak (asko jota 10 puntu); ostaturako proposatzen diren kultur ekintzak (10 puntu) eta lizitatzaila langabezian egotea (5 puntu) baloratuko dira. Era berean, behin-behineko fidantza 1.000 eurokoa izanen da.

Xehetasun gehiago biltzen dituen baldintzen agiria, bai udal idazkaritzan bai eta www.zubieta.eus web orrian ere, interesdunen eskura dago.

Herri-galdeketerako sinadurak bilduko dituzte apirilaren 15ean

F. ETXEKOLONEA ZUBIETA

Gure Esku Dago ekimenaren harira Malerrekan sorturiko Aunitz Eskuetan taldea hasia da maiatzaren 6ko herri-galdeketa egin ahal izateko sinadurak biltzen. Sinadura bilketen irekiera egunean 12 herritarrek Donezteben sinatu zuten. Baina herri-galdeketa egin ahal izateko, 37 sinadura behar dira, herrian erroldatuta dauden biztanleen %15a, alegia.

Ines Gereka herritarrak apirilaren 15ean herrian bertan biltzeko ardura hartu du. Hori

horrela, herritarrek hilaren 15ean, 11:00etatik 14:00etara bitarte, sinatzeko aukera izanen dute, herriko plazan (euria eginez gero, estalpean elkartzeko dira).

Mokadutxo

Bertaratzen direnei labe ibiltarian prestatutako mokadutxo bat ere eskainiko zaie. Sinadurak bildu bitartean, herriko trikitilari eta panderojolek girotuko dute herria eta herritarrek kamisetak erosi ahal izateko, postu bat paratuko dute.

Udalak herriko lanetarako langileak kontratatuko ditu

Udalak errotarako langile bat eta zerbitzu anitzak egiteko bi langile kontratatuko hautapen prozesua egin du. Lanaldi osoko hiru deialdi atera zituzten, bat errotarako eta bi herriko mantentze lanak egiteko. Curriculumak apirilaren 4a arte jasotzekoak ziren.

Uraren Bidea moldatzeko lanak Sasoik egingen ditu

Uraren bidea txirringulaz ibiltzeko paratu nahi dute, Ituren, Elgorriaga, Doneztebe eta Zubietako eremuetan. Lanaren aurrekontua 50.882,53 eurokoa (BEZik gabe) da eta bost enpresen aurrekontuak bildu ondotik, Saso Enpresari eman diote ardura.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Udaberriko kolekzio berria!

Maindire eskaintza anitza

edredoi fundak • albornoak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak
Tafalla, 13 • IRUÑA • 948 230 634

MALERREKA



Emakumezkoen eta gizonezkoen frontenis txapelketetako finalistak, antolatzaileekin. UTZITAKO ARGAZKIAK

Aunitz Eskuetan frontenis txapelketa giro onean akitu da

Nesken artean Esther Iriartek eta Alazne Aizpuruk irabazi dute eta gizonezkoetan, Andoni San Martinek eta Aritz Juaneneak

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Aunitz Eskuetan taldeak antolaturiko frontenis txapelketa bukaera eman zioten martxoaren 17an. Egun osoan mugimendua izan zen herrian. Ezkurra pilotalekuan partidak izan ziren goizean eta arratsaldean. Ondotik, triki-poteoan ibili ziren eta eguna borobiltzeko bertso afari-desafioa izan zuten Arantzokon. Aunitz izan ziren azkenengo partidak ikusi eta bertso afari-desafioa ikustea erabaki zutenak. 60 lagun bildu ziren afarian, eta Egoitz Gorosterrazu, Iker Gorosterrazu eta

Josu Sanjurjo eta Bittor Elizagoien, Xabi Maia eta Alazne Untxaloren arteko bertso-desafioaz gozatzeko aukera izan zuten.

13 bikoteren artean, nesken arteko frontenis txapelketa Esther Iriarte eta Alazne Aizpuruk irabazi zuten, Maria Larretxea eta Maider Goñi menderatuta (30-22). Gizonezkoen garaipena, berriz, Andoni San Martin eta Aritz Juaneneak lortu zuten, Mikel Arregi eta Igor Arregiri 30-23 irabazita. 31 bikote aritu dira. Goizean, hirugarren eta lauugarren postuak jokatu zituzten.

Maite Iriarte eta Miren Arretxeak irabazi zuten Oihana Mitxelena eta Nerea Telletxearen aurka (30-13). Gizonezkoetan, Iñaki Oskoz eta Patxi Sarratea izan ziren hirugarren, Mikel Goñi eta Joseba Telletxea mendean hartuta (30-26).

Apirilaren 13 eta 14an Donamarian

Apirilaren 13tik 15erako asteburuan herri-galdeketa egiteko sinadurak biltzen segituko dute herriz herri. Horretaz gain, Donamarian, apirilaren 13an talo tailerra egingen dute plazan, ortziralean 19:00etan hasita eta, herriko trikitilariak ibiliko dira kalez kale. Iratxo ostatuan mus txapelketa jokatuko dute 22:00etan.

Apirilaren 14an, larunbat goizeko zazpitan abiatuta mendi itzulia egingen dute Donamariako mugetan barna eta ondotik herri bazkaria. Arratsaldean poteoa eta haurrendako Gure Esku Dagoren jolasak izanen dituzte.

Malerreka kantuz larunbatean egingen dute Donamarian

Apirilaren 7an, Malerrekako Euskara Zerbitzuak hilero antolatzen duen Malerreka kantuz ekimena Donamariara ailegatuko da. Aitzineko urteetan bezala, kantuan aritzeko hitzordua larunbat eguerdiko hamabietan izanen da herriko plazan.

Turistei hizkuntza-errealitatearen berri emanen diete

Malerrekako Mankomunitateak eskualdera datozen turistek hemengo hizkuntza-errealitatearen berri izateko esku-orriak argitaratu ditu. Aste Santuan hasi dira banatzen, eskualdeko turismo bulegoetan eta toki turistiko esanguratsuenetan.

Euskaraldirako batzorde eragilea osatzen dabilta

Malerrekak Euskaraldiaren harira antolatutako 11 egun euskaraz egitasmoan parte hartu nahi du. Hori horrela, formazioak jaso eta herritarrei Euskaraldiaren inguruko informazioa helarazteko behar den batzorde eragilea osatzen hasiak dira.



BIZI-ASEGURUek orain...
%30eko beherapena
Zure bizi-asegurua estaldura eksklusibo eta berritzaileekin urteko **50€** soilik ordainduta



Gurekin harremanetan jarriz gero, eskaintzak zehetasun osoz azalduko dizkizuegu!

☎ DONEZTEBE 948 450 266
BERA 948 625 259
📞 691 384 651 (WhatsApp)
✉ arnedo.ind@allianzmed.es



JAIONE ARIZTEGI

Urrozko gazteak sagardotegian ederki

Aurtengo sagardotegiko ateraldia ere joan da. Giro ezin hobean ibili ziren eta joan-etorria autobusean egin zuten Urrozko 30 bat gaztek. Bertze baten esperoan geratu da bat baino gehiago. Emakumearen Egunaren harira egindako otorduan, berriz, 18 emakume bildu ziren Herriko Ostatuan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Eta Donamariko gazteak joateko prest

Azken urteetan egiten duten bezala, Donamariako gazteek sagardotegira ateraldia antolatuta dute. Apirilaren 7an izanen da, larunbatarekin, eta aurtengoan Petrtegi bisitatuko dute. Iazko argazkian ikus daitekeen bezala, kuadrilla ederra biltzen da urtero-urtero.



Hasier Larretxea Gortari liburua aurkezten, gurasoekin batera. JUAN MARI ONDIKOL

Gurasoekin batera liburua aurkeztu du Hasier Larretxeak

Basoaren Egunaren egitarauaren barrenean, Markategi inguruko hegaztien begiralekua inauguratu zuten

TTIPI-TTAPA BERTIZ

Martxoaren 25ean, Hasier Larretxea idazleak *El lenguaje de los bosques* bere azken liburua aurkeztu zuen. Horretarako lagun izan zituen Patxi Larretxea aita eta Rosario Gortari ama, herri-kirol erakustaldi batekin. Nazioarteko Basoen Eguna ospatu zuten martxoaren 21ean eta horren harira, Bertizko Natur Parkean ekitaldiak egin zituzten martxoko hondarreko asteburuan. Tartean, Larretxearen liburuaren aurkezpena.

Horretaz gain, zenbait hitzaldi eta tailerrekin batera,

Bertizko Natur Parkeko Hidearen inaugurazioa egin zuten, Markategi inguruan. Hain zuzen, hegaztiak begiratzeko eraikina da, ingurumen hezitzaileen eta argazkilarien laguntzaz diseinatu dena. 10.000 euroko inbertsioa egin dute horretarako. Etxola honi esker, ikasleek eta parkea bisitatzeko duten aukera izanen dute basoko hegazti nagusiak zein diren ikasteko eta behatzeko.

Oraindik, apirilaren 8ra arte Zuhaitz Zaharren Lagunen Elkarrekin utzitako argazki erakusketa ikusteko aukera dago Pedro Ciga aretoan.

TAPICERIA MARTINEZ

- %18ko **DESKONTUA** gure oihaletan
 - Egoera txarrean dauden gisa guztietako sofak, aulkiak eta altzariak tapizatzen ditugu
 - Funda doigarriak, neurrira egindako espumak edo lumaz betetakoak
- Tapizerian artisaauk
 - Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe
 - Entrega eta bilketa dohainik

676 514 852

LEHEN ORAIN

LEHEN ORAIN

LEHEN ORAIN

LEHEN ORAIN

LEHEN ORAIN

ORBELA
SENDERISMOA ATERPENEKIA
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014 - BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com

www.orbela-beintza.com

744 484 361

ttipi-ttapa



Martxoaren 20an errepidea moztu zuten Arraizko Benta inguruan,

N-121-A errepidean segurtasuna eskatuz mugitzen hasi dira

Inguruko udal ordezkariak Manu Ayerdiarekin egindako bileraren ondotik errepide mozketa egin zuten Arraizko Bentan

TTIPI-TTAPA

N-121-A errepide inguruko alkateek bilera egin zuten martxoaren 19an, Manu Ayerdi Nafarroako Gobernuako presidenteordearekin eta beraien eskaria argi azaldu zioten: maiatz bukaeran hasiko diren Belate eta Almandozko tunelen egokitzan lanek irauten duten zazpi hilabetetan nazioarteko bidea egiten duten kamioiak errepide horretatik ibiltzea debekatzea. Egoera salatzeko lehen mobilizazioa egun berean egin zuten, Arraizko Bentan ordu laurden batez moztu zuten trafikoa.

Manu Ayerdi presidenteordeak, aldiz, uste du Belateko errepide zaharrean inbertitzeko asmoa duten 1,5 milioi euroekin (zola berrituko dute, seinalizazioa, margoketa...) eta Foruzaingoaren presentzia areagotuz, «eskaini dezakegun segurtasun maila arrazoizkoa» dela. Horregatik, Gobernuak debekua baino nahiago du nazioarteko garraioko kamioiei berte bideak erabiltzeko aholkua ematea, bertzerik gabe.

Ayerdiarekin bildu ondotik beraien iritzia eman zuten

inguruko alkateek. Joseba Otondo Baztango alkateak aipatu zuenez, «ez dugu uste Belateko portuak kamioi kopuru hori guztia jasan dezakeenik, ezin dugu arrisku hori gure gain hartu eta behin eta berriz errepikatuko dugu zentzuzkoena dela nazioarteko garraioan dabilzten kamioi horiek berte errepide batzuetara bideratzea».

Olabeko bizilagunek hiru egunez eta 24 orduz grabatu dute errepidea eta, irudien arabera, egunero 3.900 kamioi pasatzen dira banaz berte. 2007an egunero 2.600 igarotzen zirela dio Gobernuak, beraz, %33 igo da kopurua azken urtean. Azken lau hilabeteetan 14 istripu izan dira, bertz hildako eta bertz zauritu larriekin. Denbora berean, A15 errepidean hiru istripu arin bertzerik ez dira izan.

Gainera, Belateko tunelen lanak egiten dituzten bitartean Gipuzkoan ere San Lorenzoko tunela moldatzeko asmoa dute. Hortaz, alkateen ustez, «bi administrazioetako batek lanak gibelatu beharko lituzke».

Eskualdeko artisautza sustatzeko asmoz, Argitsu Elkarteak sortu dute

TTIPI-TTAPA

Urdazubi, Baztan, Malerreka, Bortzirriak eta Bertizaranako artisau batzuek, eskualdean beren lana sustatu eta ezagutzera emateko, Argitsu Elkarteak sortu dute. Elkarteak, bertzeak bertze, artisauen egitekoak ikusarazi, tailerrak eta promozio ekintzak egin eta kultur besta eta jardueretarako herrietako elkarteekin elkarlanean aritu nahi du.

Horretarako, inguruko elkarteekin elkarlanean jardun nahi lukete, bereziki bestak eta kultur arloko egunen an-

tolakuntzan beren presentzia ageriko egiteko. Era berean, Aste Santuan egin zituzten lehendabiziko plazaratzeak: martxoaren 29an Elizondoko plazan eta apirilaren 1ean Urdazubin. Bertaratu zirenek osagarriak, buruhandiak, kosmetika naturala, altzairu zaharberriak, larrua, egurra, zilarra... denetarik ikusi eta erosteko aukera izan zuten. Produktuak saltzeaz gainera, haurrentako tailerrak eskaini zituzten. Era berean, beraiek eginiko produktu-sorta bat zozketatu zuten.

Baztan-Bidasoko ekoizleen merkatua izanen dute Beran

Apirilaren 14an, larunbatean, Baztan-Bidasaldeko ekoizleen merkatua egingen dute 10:30etik 13:30era bitarte, Rikardo Barojako eskolako arkupeetan. Azoka hau hilero antolatzen da, Berako Udalaren laguntzaz da eta denetarik produktuak biltzen dituzte.



Rikardo Baroja eskolan biltzen dira.



SAHARAZTAN

Saharako umeak udan hartzeko deia

Aurten ezin izanen du Saharaztan elkarteak Bakeleku antolatu. Hortaz, uda honetan Saharako haur bat etxean eduki nahi duenak Saharaztan elkartearekin kontaktuan jar daiteke apirilaren 15a baino lehen, 620 319 444ra deituz (Pilare) edo saharaztan@hotmail.com helbidera idatziz.

Bidasoaldeko XXXI. Bertso-paper lehiaketa abian da

Lanak maiatzaren 20ra bitarte aurkez daitezke Berako Kultur Etxean eta sari banaketa ekainaren 1ean egingen dute

TTIPI-TTAPA

Berako kultur Batzordeak eta Bortzirietako Bertso eskolak, Euskara Mankomunitatearen laguntzarekin, Baztan-Bidasoaldeko 31. Bertso-paper lehiaketa antolatuta dute, Baztan-Bidaso inguruan bizi direnentzat. Lanak Berako Kultur Etxean aurkeztu behar dira, maiatzaren 20a baino lehen, gisa hauetako lehiaketetan ohikoa den sistema erabiliz.

Euskarazko, jatorrizko, argitaratu gabeko eta bertze lehiaketaren batean saritu ez

diren bertsoak onartuko dira bakarrik eta norberak aukeratu du gaia, doinua eta neurria.

Mailak eta sariak

Ohi bezala, parte-hartzaileak lau mailatan banatu dituzte: A maila: 10 urte artekoak. Bertso bat edo bi koplak osatu beharko dituzte. Saria: trofeoa eta 50 euro (lehenengoak) eta trofeoa eta 30 euro (bigarrenak). B maila: (11-14 urte) Bi bertso edo lau koplak egin behar dituzte. Saria: trofeoa eta 100 euro irabazleak eta trofeoa eta

70 euro bigarrenak. C maila: (15-18 urte) lau bertso osatu beharko dituzte guttienez. Saria: trofeoa eta 150 euro lehenengoak eta trofeoa eta 120 euro bigarrenak. D maila: 18 urtetik goti. Guttienez zortzi bertso egin beharko dituzte. Saria: trofeoa eta 200 euro garaileak eta 150 euro bigarrenak.

Lanak helbide honetara bidali behar dira:

Berako Kultur Etxea
Baztan-Bidasoko XXXI.
Bertsopaper lehiaketa
Eztegara pasealekua, 11
31780 BERA (Nafarroa)

Sari banaketa ekainaren 1ean Berako Kultur Etxean

Bortzirietako Bertso Eskolak izendatuko du epaimahaia eta sariak hutsik utz ditzake, baita sari bereziak eman ere. Ekainaren 1ean, ortziraletarakin izanen da sari banaketa Berako Kultur Etxean 18:00etan, ohiko jaialdiarekin.

Solaslagunak udaberriko egitaraua prest du

Solaslaguna egitasmoak udaberriari begira hainbat saio prestatu ditu. Saio bakoitzeko eguna hurbildu ahala jardueraz zehazten joanen dira, baina hauek dira aurreikusitakoak: Apirilaren 29an, Nafarroaren Eguna ateraldia; Mintzakide eta Mintzalagunekin batera Baigorriara joanen dira. Joan etorria egiteko autobusa izanen da.

Maiatzaren 12an mendi itzulua egingen dute, Malerrekako txoko ederrak ezagutzeko.

Ekainaren 2an, Mintza Eguna ospatuko dute Hondarribian.

Ekainaren 17an, ikasturtearen agurra izanen dute. Arantziatik abiatuta mendi ibilaldia egingen dute Mendaurrera, Mintzakide eta Mintzalagunekin batera.

Parte hartu nahi duten guzietz ireritako ekitaldiak dira.


DONEZTEBE

Hasi dira **MALERREKA PROMOZIOAK** promotorak egindako etxebizitzak eraikitzen.

Dagoeneko 2. faseko etxebizitzak salgai



Ez galdu aukera!

- ✓ Zure beharren **araberako finantziazioa**, Rural Kutxaren babes eta abalarekin 
- ✓ **B ziurtagiria**, isolamendu berriak, sistema arotermikodun berogailua (kontsumo baxua)
- ✓ **Material nobleetan** eraikia
- ✓ **Barne materialak aukeran**: egurra, azulejoak...
- ✓ Sukaldea eta lokala gurekin erosiz gero, **%11 aurreztuko** duzu

Informa zaitez

EZKAIN ERAIKUNTZAK
Inzakardi kalea z/g | DONEZTEBE

629 951 170



ZURE BEHARREN ARABERA,
2 eta 3 logelako etxebizitzak.
Zuk erran eta guk egin!

58 m²koak:
sukaldea/egongela, 2 logela, 2 komun.

74 m² eta 90m² ingurukoak:
3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun.

135.000 €tik goiti

LOKALAK ere baditugu,
txoko, garaje edo
lokal komertzialak egiteko



220 bazkide joan ziren Iruñeko manifestaziora. FERNANDO ETXEBERRIA

Erretiro-pentsio duina aldarrikatu dute

220 kide joan ziren Iruñeara eta Elizondon ere bazkideek aldarrikapen keinuak egin zituzten

FERNANDO ETXEBERRIA

Arkupeak elkarteko 220 bazkidek, erretiro-pentsioaren gorakada eskasa dela eta, Iruñeko manifestazioan parte hartu dute.

Besteak beste, Nafarroako pentsionisten %45ak hilabete bukaerara ailegatzeko dituzten zailtasunak eta %38ak behar

duen laguntza da salatu dutena. Areago, Nafarroan 55.000 pentsiodunek 700 euro edo guttiago kobratzen dituztela gaitzetsi nahi izan dute.

Desadostasun eta haserreak plazaratzearekin batera, zentzuzko gorakada baten aldeko aldarrikapenak egin zituzten. Horretarako, martxoaren 17an,

Iruñeko Gaztelu Enparantzan bildu ziren adierazpenak biltzen zituzten kartelak esku artean zituztela. Karriketan barna ibili ondotik, Merindade Plazan bukatu zuten ibilbidea. Guztira 2.500 lagun inguru bildu ziren.

Oihartzuna izan duela entzun eta ikusi artean, antolatzaileek aldarrikapenenak egiten segitzeko eta iguera lortu arte sutsuki protestatzeko deia egin zuten.

Elizondon ere bai

Antolatzaileek Iruñean eginitako deialdia aintzat hartu dute Arkupeak Elkarteko kideek. Martxoaren 24an Elizondoko Plazako manifestazioarekin bat egin zuten.

Hurrengo mendi irteera Igantzin izanen dute

Arkupeak Elkarteko kideek hilabetero-hilabetero mendi irteera bat egiten dute. Martxoaren 20an, erraterako, 38 mendizale Etxalarren ibili ziren. Eguraldi txarra tarteko, pentsaturiko ibilbidea aldatu behar izan zuten. 08:00etan abiatu eta Santa Krutz ermita bisitatu zuten. Ondotik, Gorostidin barna, ehiztarien txabolan gosalduta zuten. Hala, Larrapil auzotik herrira jautsi ziren. 14:00etan bazkaltzeko elkartu ziren. Hurrengo mendi irteera Igantzira izanen dute, apirilaren 17an.

Dantxarinako Kantu Zaharren bazkarira joanen dira

Apirilaren 26an izanen dute Dantxarinako Kantu Zaharren bazkaria. Elkarteko kideak bertara joateko asmatan da biltza. Bertan, mus txapelketa azkarra jokatzeko aukera izanen dute zaletuek; kantuan eta dantzan ibiltzeko tarterik ez dute faltako musikazaleek.



FERNANDO ETXEBERRIA

Victor Orbegozo eta Jose Belarra garaile

Martxoaren 15ean 36 bikotek mus txapelketa jokatu zuten Donezteben. 09:30ean hasi zituzten partidak, eta hamaiketako egiteko tarte bat hartu eta buru-belarri segitu zuten, 14:00ak arte. Victor Orbegozo eta Jose Belarrak izan ziren txapeldun; eta bazkarian 101 lagun bildu ziren.



FERNANDO ETXEBERRIA

317 lagun bildu ziren sagardotegian

Martxoaren 20an elkarteko 317 kide Oianume sagardotegira joan ziren, zazpi autobusetan. Bazkariaren ondotik, sei sagardo kaxa zozketatu zituzten, eta dantzaldirako tartea izan zuten. Lerro hauen bidez, elkarteko kideek zerbitzarien harrera eta janariaren kalitatea eskertu nahi izan dituzte.



Apezetxeari Agurra dantzatu zion Patxi Iribarrenek. FELIX LOIARTE

Berriki hildako kidea omendu du Umore Ona abesbatzak

Igeldoko Lezkarri abesbatzak bakarrik eskainitako emanaldian Agurra dantzatu eta kantatu zioten Juan Joxe Apezetxeari

TTIPI-TTAPA

Aspaldian iragarritako kontzertua zen Goizuetako Umore Ona eta Igeldoko Lezkarri abesbatzek martxoaren 24an Goizuetako elizan eskaini behar zutena. Baina aste horretako gertaera ilun batek eta beste zenbait arrazoigatik, hasierako egitaraua aldatu behar izan zuten.

Hain zuzen, martxoaren 18an hil zen Juan Joxe Apezetxea Arozena abesbatzako kidea, 72 urte zituela. Horretaz gainera, Eneko Amundarain zuzendaria gaixotu zela kontuan hartuz, herriko abesbatzak ez zuten emanaldirik eskaini. Baina berriki hildako korukidearen omenez, Agurra kantatu zioten, Patxi Iribarrenek dantzatu zuen bitartean.

Ondotik, Lezkarrik, Nice Cresporen gidaritzapean kantatu zuen *Ojos Brujos, Jave*

cento, Nerea izango zen, Itxaso, Suliko, Siyahamba, Dancea canta, Basoillarra, Nere etxea, Goizian argi hastian eta Maitia nun zira.

Afaria elkarrekin

Bukatzeke, bi abesbatzek elkarrekin afaldu zuten Umore Ona elkartearen.

Ibilgailuen zerga ordaintzeko epea apirilaren 16a arte

2018ko Ibilgailuen zerga ordaintzeko borondatezko epea martxoaren 1etik apirilaren 16ra bitarte irekia dago, Udalak bando bidez zergadunei jakinarazi dienez. Hain zuzen, urte osoko zergen egutegia plazaratu du Udalak www.goizueta.eus webgunean.



UTZITAKO ARGAZKIAK



Pilotari ttiek txapel eta domina uzta

Nafarroako Kirol Jokoetan, umeen lehen mailan txapeldun izan dira Markel eta Julen Salaberria anaiak eta kimuen bigarren mailan Oihan Legarreta eta Egoitz Elizegi. Haurren bigarren mailan txapeldunorde izan da Aitzol Salaberria eta Bortzirietan txapeldun Umeak A mailan, Xanet Apezetxea.



MARTIN ETXEBERRIA

Oxeguardako I. mus txapelketa azkarra

Martxoaren 16an jokatu zen Oxeguarda tabernako I. mus txapelketa azkarra. 16 bikotek hartu zuten parte. Patxi Arozena eta Manolo Legarreta izan ziren txapeldun, Patxi Etxeberria eta Iñaki Etxeberria txapeldunorde eta Fermin Narbarte eta Txurri hirugarren.

102 Meaka auzoa · 20304 IRUN · T.943 623 130

- Bertako sagarrarekin egindako sagardoa
- 250 lagun eserita
- Klimatizatu
- Sagardotegiko menua

TXOTX GARAI A IREKIA



Joan den urtean, plaza kolorez hornitu zuten oinezkoen aldeko kalejiran.

Urratsez Urrats Eguna egin dute eskoletako ikasleek

Erleta eskolako eta Amazabal institutuko ikasleek maiatzera bitarte irisgarritasunaren aldeko jarduerak egingen dituzte

JUAN MARI BARRIOLA

Leitzako Amazabal institutuko ikasleek joan den urtean abiatu zuten Leitza Urratsez Urrats proiektuari jarraipena eman diete, herriko irisgarritasunaren gaia berrartuz. Aurtan, gainera, Erleta eskolako gaztetxoek proiektuarekin bat egin dute.

Ikastetxean eginiko txosten batekin ekin zuten ibilbidea joan den urtean, Aitzitik, herriko irisgarritasun arazoak agerikoak zirela oharturik, ikastetxe osora hedatuz joan zen. Areago, herritarrei ikusitako arazoak helarazi zizkieten. Horren bidez, gainerako biztanleen atxikimendua lortu zuten.

Leitza Urratsez Urrats proiektuaren helburu nagusia herriko irisgarritasun gabeziez jabetzeko kontzientziazio kanpaina egitea da, guztientzako irisgarria den herria lortzeko. Denek «nahi duten tokira arazorik eta beldurrik gabe iristeko eskubidea» bermatzeko hainbat lan egin dituzte: oinezkoentzako informazioa biltzen duten diptikoak (lau hizkuntzatan), esaterako. Ama-

zabal institutuko ikasleek kalera atera eta herrian pasatzen diren autoak zenbatu eta abiadura neurtu dute. Era berean, herritarren laguntzarekin dokumental bat grabatu dute. Erleta eskolakoek, berriz, ibilbideak egin dituzte, eskakizunak aurkezteko alkatearekin bildu dira...

Aldarrikapen nagusia, martxoaren 28an besta giroan eginikoa izan da. Herritar askok bi eskoletatik luzaturiko gonbidapenarekin bat eginez, oinezkoen aldeko kalejira erraldoian parte hartu zuten. Kalejira ez ezik, Leitza Mob delakoak, zozketek eta musikal... herria girotu zuten.

Maiatzera bitarte ekitaldiak

Maiatzera bitarte gaiaren lanak bideratuko duten ekitaldiak egingen dituzte eskolako eta institutuko ikasleek. Maiatzaren 4an, ostirala, 11:30ean udaletxean edo zineman lan guztien aurkezpena egitea aurreikusitako dute, eginiko lanak jendaurrean aurkeztuz (diptikoak, dokumentala eta autoen abiadura eta kopuruari buruzko datuak...).

Herri Krosean parte hartzeko izen-ematea irekita dago dagoeneko

Apirilaren 21ean izanen da Leitzako XL. Herri Krosa. Herritarrek dagoeneko prestaketa lanetan dabiltza. Martxoaren 15ean hasi ziren taldekako entrenamenduekin: eta ordutik, astelehen eta ostegunetan 10:00etan eta 19:00etan entrenatzeko saioak egingen dituzte. Areago, apirilaren 18ra arte entrenamenduariketak zehaztuak dituzte, nahi duenak hori jarraitzeko aukera izan dezan.

Gisa bertsuan, izen-ematea ere zabalduta dago. Apirilaren 20a izanen da azken eguna.

Aurrerako kideek 8 euro ordaindu beharko dituzte; gainerakoek, aldiz, 10. Baina azken momentuan animatzen denak ere izanen du aukera, 15 euro ordainduz (Aurrerakoek 10 euro).

17:30ean da helduen hitzordua eta 4.500 edo 9.000 kilometro egin ditzakete. Aurretik, benjamin eta gaztetxoentzat momentua izanen da. Horiek 800 eta 2.500 metroko ibilbidea egingen dute, hurrenez hurren. Lasterkariak plazatik abiatuko dira eta helmuga ere abiapuntua izanen dute.

Gimnasia hipopresiboko ikastaroak antolatu ditu Anikotek

Anikote Kirol Enpresak gimnasia hipopresiboko ikastaroak antolatu ditu. Apirilean eta maiatzean izanen dira 30 minutuko 14 saioak. Bi talde banatu dituzte: goizez eta arratsaldean. Ikastaroa goizetan jasotzekoa dutenek astelehen eta asteazkenetan 12:30etik

13:00etara bitarte jasoko dituzte saioak.

Arratsaldeetakoek, berriz, astelehen eta ostegunetan 16:30etik 17:00etara.

Taldeak kopuru mugatukoak izanen dira eta 85 euro ordaindu beharko dira (bazkideek 50 euro).



Iberoko dorrea berreraikitze lanetan

Iberoko Erdi Aroko dorrea berreraikitze lanak, berriz ere, abiatu dituzte. Lan horiek egiteko Nafarroako Gobernuak 226.527 euroko gastua egitea onartu zuen. Horri esker, inguruko historia bildu eta gunea garapen sozio-ekonomikorako proiektu estrategiko bilakatzea lor liteke.

Udala Nafarroako Gobernuko Alokairu Poltsan sartu da

Udalak etxebizitza gaiak lantzeko lau urtetarako hitzarmena sinatu du

JUAN MARI BARRIOLA

Leitzako Udalak etxebizitza gaietarako lankidetzeta-hitzarmena sinatu du Migel Laparra, Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialeko lehendakariordearekin. Gobernuko Alokairu poltsan sartuz, Udalak etxebizitzetarako sarbidea hobetzea du helburu. Hitzarmenak lau urtetako indarraldia izanen du.

Hitzarmen horren bidez, Leitzako herriak Gobernuko Alokairu Poltsaren laguntzailer aitortu du bere burua. Hala, Udalak, egoki deritzen ekimenen bidez, NASUVINSak kudeatzen duen programari buruzko informazioa zabalteko konpromisoa hartu du. Horrekin batera, etxebizitza hutsak atzeman eta etxejabeei okupazio eraginkorra egiteko alternatibak eskainiko dizkie,



Alkatea eta Laparra, sinatzerakoan.

etxebizitza eskaintzaileei erraztasunak eskainiz.

NASUVINSak zerbitzua martxan jarri aurretik, Udalean ardura hartuko duen langilegoari gaiaren inguruko araudia azaldu eta beharrezkoa duten informazio-euskarriak emateko ardura hartu du. Udalak zerbitzua aste gutxiren buruan martxan jartzeko eta etxebizitza errenta eta eska-tzaile gestioak udal bulegoetan egiteko asmoa du.



Bertatik Bertara formazio saioak abian

Abian dira Bertatik bertara formazio saioak. Martxoaren 22an izan zuten lehendabiziko saioa eta elikagaien inguruko legedi higieniko sanitarioa eta fiskala izan zituzten hizpide, INTIaren eskutik. Apirilaren 5ean izanen dute hurrengo hitzordua, EHNEko kideak hizlari dituztela.



Bardoak txapelketako finalean izan ziren bertsolari eta laguntzaileak.

Leitzako 'Aldatzea komeni' nagusitu da Bardoetan

Lesakako 'Unibertsolariak' eta Baztan-Malerrekako 'Addams familia' izan ziren finalista martxoaren 24an Lekunberrin

TTIPI-TTAPA

Lekunberriko Toki Alai sagardotegian jokatu zen martxoaren 24an Bardoaren finala, ia 200 entzuleren aurrean. Leitzako *Aldatzea komeni*, Baztan eta Malerrekako *Addams familia* eta Lesakako *Unibertsolariak* taldeak aritu ziren.

Otsailaren 2an abiatu zen 2018ko Bardoak Nafarroako taldekako bertso egitasmoa, 16 talde eta 113 parte-hartzailearekin. 22 saioren ondotik, jokatu zen finala. Taula gainean, hiru talde: Leitzako *Aldatzea komeni*, Baztan eta Malerrekako *Addams familia*

eta Lesakako *Unibertsolariak*. Guztira, hamabi bertsolari izan ziren kantuan, eta talde bakoitzeko kide banak bete zituen gai-jartzaile zereginak. Azkenean, publikoko 20 lagun eta Bardoetan parte hartu duten talde bakoitzeko kide banaren puntuak zenbatuta, Leitzako *Aldatzea komeni* izendatu zuten txapeladun. Euskal produktuekin osatutako saski bana eta Bardoetako zapia eskuratu zituzten hiru talde finalistek. Irabazleak, gainera, Murugarrengo Al-daiondo sagardotegian otordubate egiteko txartela jaso dute.

BRT Menditarrak gaupasa hilaren 21ean Ultzaman

Errugbi taldearen aldeko jaialdi handia Larraintzarko pilotalekuan egingen dute eta sarrerak salgai jarri dituzte

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, errugbiaren gaupasa antolatzen ari da aurtenera BRT Menditarrak errugbi taldea. Arras besta garrantzitsua da taldearen biziraupenerako, aurrekontuaren zatirik handiena bertatik lortzen baita. Taldeko erditsuk ultzamarrak izanik eta inguru haietan hau bezain ekitaldi handirik izaten ez denez, Larraintzarko frontoian antolatzen dute urtero. Giro aparta, jende jatorra, besta handia eta egitasmo on baten aldeko keinua da eta Menditarrak BRT taldetik gonbidapena luzatu diete inguruko bailaretako jendeari, apirilaren 21eko gaupasan parte hartzeko.

Egitarauari dagokionez, afal aintzinetik mexikanak izanen dira Tajudos del Norte taldea-

ren eskutik. Afaltzeko salda, zikiroa, mamia eta sorpresak izanen dira.

Afal ondotik, Kantu zaharrak, Oharkabe eta Tirri (Tirri&Terrikoa) aditzeko eta dantzatzeko aukera izanen da frontoian. Kanpoko karpan, berriz, Skabidean, Muga eta DJ Purin ariko dira.

Sarrerak salgai jarri dituzte Doneztebeko Titi ostatuan, Elizondoko Intzan eta Larraintzarko ostatuan. Sarrera 7 euro kostako da; afaria eta sarrera 25 euro; itzulerako autobusa ere 4 eurotan izanen da (Larraintzar-Mugairi-Donztebe-Elizondo eta Larraintzar-Markalain-Berriozar-Iruñea ibilbideak egingen ditu).

Gainera, Divertis-en eskutik 300 euroko zozketan parte hartzeko aukera izanen da sarrerarekin.



Errugbi taldearen biziraupenerako garrantzitsua da gaupasa. UTZITAKO ARGAZKIA

Ortziraleko Udaberriko Feriak ahari antxuak ere sarituko ditu aurtenera

TTIPI-TTAPA ELIZONDO

Aitzineko alean aipatu bezala, Udaberriko Feria ospatuko dute apirilaren 6an, ortziralean Elizondon, Baztango Udalak eta Cederna-Garalur erakundeak antolatuta. Egitarauan ez da aldaketa handirik izanen, baina aurtenera


hogeigarren edizioa beteko duen ahari lehiaketak izanen du berrikuntzarik. Hain zuzen, bi atal berri izanen dira, urtea bete ez duten antxu ahariak ere saritzeko, mutur gorrietan nahiz mutur beltzetan. Sari ekonomikoek gain, irabazleek kaiku bana eramanez dute.



ARGAZKIA: BAZTAN IKASTOLAK UTZIA

Futbol txapelketa Baztan Ikastolan

Kiroltasuna sustatzeko futbol txapelketa jokatu dute Baztan Ikastolan. Martxoaren 15ean finalak jokatu zituzten eta Osasunako Alaitz Nuñez (Baztan Ikastolako ikasle ohia), Oier Sanjurjo, Oier Altuna eta Unai Garzia izan ziren sariak banatzen eta kamisetak sinatzen.



ARGAZKIA: BAZTAN IKASTOLAK UTZIA

Ttikiak Planetarioan eta Txiki-Parkean

Baztan Ikastolako ttikiak Iruñeko Planetarium eta Kili-Kili txiki-parkean izan ziren martxoaren 16an. Haur Hezkuntzako 3, 4 eta 5 urteko umetxoak, beraien zaindari, laguntzaile eta irakasleekin joan ziren. 3 urtekoendako lehendabiziko ibilaldi luzea izan zen eta primeran ibili omen ziren.



Josu Elberdin, Elizondoko Abesbatzaren 75. urteurrenaren harira egindako tailerretako batean. JUAN MARI ONDIKOL

Josu Elberdinen Jolasean musikala Elizondorako prest

Apirilaren 21eko emanaldirako sarrerak salgai daude Elizondoko Arkupe eta Malkorra gozotegietan

TTIPI-TTAPA ELIZONDO

Elizondoko Abesbatza Ttiki 2009an Elizondoko Abesbatzaren barruan sortutako taldea da. Kristina eta Maki Urtaşun ahizpen Zuzendaritzapean. Ordutik ez dio lan egiteari utzi eta gaur egun, 6 eta 15 urte tarteko ia 70 kidek osatzen dute.

2017an eta bere 75. urteurrenaren ospakizun ekitaldien barrenean, Elizondoko Abesbatzak bi tailer antolatu zituen Josu Elberdin konpositore pasaitarrarekin, bat haurren abesbatzarekin eta bertzea helduekin. Bi abesbatzek be-

raien lanak abesten bazituzten ere, tailerren ondotik lan handiren bat taulartzeko ideia hasi zen garatzen eta Elberdin bera izan zen Jolasean musikala eszenaratzeko proposamena egin zuena.

Jolasean

60 bat minutu irauten duen musikalean haurren abesbatzak, haur bakarlariek eta hiru abeslari helduk hartzen dute parte, baita pertsonaia bat gehiago izango den narratzailerak ere. Euskaraz idatzia dago baina ikusle ez euskaldunek gaztelaniazko testuak jarraitu

ahal izanen dituzte esku-orrietan.

Ikuskizuna 70 abeslari baino gehiagok eta 12 musikariren orkestrak interpretatuko dute, guziak baztandarrak.

Interpretazioa eta esparru musikalez gain, argi eta soinuaren esparru teknikoak hurbiletik zaindu nahi dute. Horretarako, izen handiko Kaskabel Soinua enpresa ariko da lanean.

Apirilaren 21ean, larunbatean, Elizondoko Baztan Pilotalekuan izanen da lehen emanaldia, 20:30ean. Sarreraren aurretiko salmentaren eritimoaren arabera, hurrengo egunean (apirilaren 22an) bigarren emanaldi bat egiteko aukera irekita dago.

Sarrerak

Sarrerak martxoaren 16an jarri ziren salgai Elizondoko Arkupe eta Malkorra Gozotegietan. Salneurria 10 eurokoa da helduendako eta 5 eurokoa 12 urte arteko haurrentzako.

Helduendako antzerki akustikoa Iruritan igandean

Ez dok Hiru helduendako antzerki akustikoa eskainiko dute apirilaren 8an, igandean, 19:00etan Iruritan Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean. Euskal Herriko kantutegian oinarritutako ikuskizun teatrala eskainiko dute Patxo Telleria eta Mikel Martinezek.

Goizalde abesbatzaren kontzertua Zigan

Nafarroako Abesbatzen Elkar-teak, Goizalde Abesbatzak eta Zigako herriak antolatuta, kontzertua eskainiko du Beriango Goizalde Abesbatzak Jose Sanchez Fernandezek zuzendutako apirilaren 14an, larunbatean 19:00etan Zigako elizan.

Euskaraldiaren formazio saioa apirilaren 21ean

Euskaraldiaren formazio saioa egingen dute apirilaren 21ean (10:00-13:30, hamaiketako hartzeko tarte izanen da) Arizkuneneako sabaian. Bertan ekimenaren oinarri teoriakoak, komunikazio estrategiak, herritarren saretze-lanak eta prestakuntza landuko dituzte.

Zigan Teknika Metamorfikoari buruzko ikastaroa

Teknika Metamorfikoaren inguruan hirugarren mailako ikastaroa eskainiko dute Zigako Etxezuria landetxean apirilaren 9an (12:00etan) eta apirilaren 12an (13:00etan). Osasunazaintzeko terapia natural gisa onartua dago teknika metamorfikoa.

zergalan | **asegi**
asesores y consejeros de empresa
enpresa kontseilari eta aholkulariak

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa

- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

Arraiozko bestetako lanak prestatzen hasiak dira

Programaren azalerako eta kontrazalerako marrazkiak apirilaren 30erako aurkeztu beharko dituzte

NEREA MORTALENA ARRAIOZ

Nahiz eta bestak Iraileko lehen-dabiziko asteburuan izan, prestaketa lanak lehenagotik hasten dira. Arraiozko gazteak hasi dira lanean. Lan horietako bat eskuko programan erabiliko den irudia aukeratzea izaten da. Horretarako herriko gazteak herriko eskolari bertako haurrek besten inguruan marrazkiak egiteko eskaera egin diote. Marrazkiek ez dute egilearen izenik izanen, gibleko aldean jarritako zenbakiaren bidez identifikatuko dira.

Horrela bada, marrazki guztiak sobre itxi batean sartuko dira. Zerrenda batean marrazkien zenbakiak eta egileen izenak bilduz, objetibotasunez aukeratuko dira. Aurten bi marrazki hautatuko dira eskuko programarako: bat por-



Izaro Laur nagariaren iazko lana.

tada gisa erabiltzeko eta bertzea gibleko aldean jartzeko. Marrazki guztiak apirilaren 30erako eginak behar dute. Iazko marrazkia Izaro Lurnagariena izan zen.

Maiatzean jakinen dugu nortzuk diren aurtengo eskuko programan agertuko diren marrazkien egileak.

Baztandarren Biltzarreko kartel lehiaketarik ez da egingen aurten

TTIPI-TTAPA BAZTAN

Baztandarren Biltzerra hurbiltzen ari dela eta, aurtengo besta iragarriko duen irudiaren inguruan solasteko elkartu dira, eta elkarteak aurten lehiaketarik ez dela izanen erabaki du. Bertze alorretan bezala, bertakotasuna bultzatu nahian, irudia Baztango artista grafiko baten eskuetan uztea erabaki dute.

Gisa honetan, Baztandarren Biltzerratik diotenez, «kartelaren kalitatea ziurtatzeaz gain, irudiak bestaren esentzia eta izaera garbi erakustea bilatzen

dugu, eta bidenabar, lehiakortasuna ekiditea».

Baztango artista grafikoak parte hartzera animatu nahi dituzte. Horretarako, jada egin dituzten lanen portafolioak aurkeztu beharko dituzte elkarteak beraien berri izateko. Jasotako portafolioen artean aurtengo besta iragarriko duen artista hautatu eta berehala jakinaraziko diote. Gainontzeko portafolioak, berriz, datozen urteetarako hautagai gisa gordeko dituzte, asmoa urtez urte artista baten lana aukeratzea baita.



NEREA MORTALENA

Ehiza denboraldi akabaila Arraiozen

Otsailaren 28an bukaera eman zitzaion 2017-2018 ehiza sasoiari. Martxoaren 3an herriko elkartearen egindako afari batekin ospatu zuen denboraldiaren akabaila Arraiozen basurdetan ibiltzen den kuadrillak. Aurtengo denboraldia ona izan da, izan ere 41 basurde hil dituzte.



NEREA MORTALENA

Arraioztarrak Haur Kantari jaialdian

Martxoaren 3an Beran ospatutako Haur eta Gaztetxoek kantari jaialdian parte hartu zuten Aiora Agerreberere, Ibai Bengoetxea, Nahia Lazkano, Eider Urrutia eta Jon Villanuevak Mendaur pandero eta trikitixa eskolarekin eta Eider eta Julen Urrutia anai-arrebek Baztan Ikastolarekin.

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatu



Dibortzioak, herentziak,
alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO



Erakusketan parte hartzen duten bartz emakume margolariak. UTZITAKO ARGAZKIA

Emozioak koloretan ikusgai daude Arizkunenean

Tomas Sobrinoren ikasle diren bartz emakumeren margolanak ikusgai daude apirilaren 8ra bitarte

TTIPI-TTAPA ELIZONDO

Bartz emakume margolarik beren lanaren zati bat erakusten dute Elizondoko Arizkunenean. 'Emozioak koloretan' goiburupean, 120 margolan baino gehiago aurkeztu dituzte. Martxoaren 16tik apirilaren 8ra ikusgai daude lanak, aste-gunez (17:30-20:00) eta besta egunetan (12:00-14:00). Lan horiek bartz sentsibilitate, eta errealitatea begiratzeko eta adierazteko bartz modu islatzen dituzte, espatulak eta pintzelak egindako trazaketen bidez, akuarelak, olioia eta margo sintetikoak erabiliz.

Mary Puy Luquin, Ana G.D. Ananda, Mila Esteban, Isabel Olóndriz eta Blanca Jiménezek (guztiak Tomás Sobrinoren ikasleak gaur egun) Arizkuneko ateak ireki zituzten martxoaren 16an, erakusketari hasiera emanez. Baztanek eskaintzen dituen ekitaldi kultural batzuk arras erantzun pobrea dutela komentatzen da batzutan. Hala ere, erakusketazabaldutzean, erantzun hori arras positiboia izan zen; jende aunitz elkartu zen kultur etxean, beraien laguntzarekin bartz margolariak animatuz eta bultzatuz.

Hainbat tailer eta ikastaro antolatu ditu Elizondoko Osasun Zentroak

TTIPI-TTAPA ELIZONDO

Elizondoko Osasun Zentroak hainbat ikastaro eta tailer antolatu ditu. 0-12 hilabete arteko umeendako masaje tailerra egingen dute apirilaren 6, 13, 20 eta 27an, ortziraletan 10:00etatik 11:30era. Apirilaren 11, 18 eta 25ean, asteazkene-

tan 10:30etik 13:00etara estresa eta antsietatea gaitzeko tailerra egingen dute. Maiatzaren 9 eta 16an, 10:30etik 12:30era menopausia tailerra egingen dute. Maiatzaren 22an, 11:00etatik 13:00etara Bizkar tailerra antolatu dute. Izen-ematea 948 581832 telefonoan.



JUAN MARI ONDIKOL

Ehun urte bete ditu Maria Gamiok

Sortzez Irurritako Xamargillenekoa den Maria Gamio Bikondoak ehun urte bete zituen martxoaren 16an. Elizondoko Zahar Etxean bizi da orain eta urtebetetze hor ospatu zuen, familiarekin (bi alaba, zazpi biloba eta zazpi birbilobekin) eta Zahar Etxeko langile eta bizilagunekin.



MAITANE MARITORENA

Auzolana egin dute Anizen

Auzolan eguna izan dute martxoaren 17a Anizen. Batzuk Olazarko bidea eta bertzeak Aizkokoa moldatu zituzten. Hirugarren taldeak, basaka ari duelarik frontoia babesteko bi toldo paratu zituen, eskuz mugitzen ahal direnak. Lekarozko Larraldea sagardotegian egin zuten pintterdia.


HARRI LAN, S.L.
ESTRATEGIA DE CONSTRUCCIÓN

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
 T. 948 452 143 · 948 452 449
 info@harrilan.com www.harrilan.com

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
 LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU



BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE



Bertako zuhaitz espezieak ezagutu zituzten Xabier Zabaletarekin. MAIALEN IANTZI



Iratxe Arretxea, prostituzio egoeran dauden emakumeen egoera azaltzen. M. IANTZI

Berroetako Asteburu Kulturala giro onean hasi eta bukatu da

Bertako zuhaitzak ezagutzeko ibilaldia eta emakumeen gorputzen merkantilizazioari buruzko solasaldia izan ziren

MAIALEN IANTZI BERROETA

Berroetako asteburu kulturala lehendabiziko asteburu arrakastatsua izan zen. Martxoaren 24an, goizean, Xabier Zabaletak bertako zuhaitz espezie eta barietateak ezagutzeko ibilaldia egin zuen (Hazitik Hozie elkarteak antolatua). Ibilaldiak harrera bikaina izan zuen eta 13 lagunek parte hartu zuten, lau bat orduko ibilaldian.

Arratsaldean, berriz, Iratxe Arretxeak, Nafarroako Munduko Medikuetako gizarte hezitzaileak, eman zuen hitzaldia: Emakumeen gorputzen

merkantilizazioa: sexu ustiapena helburu duen pertsonen salerosteketa eta prostituzioa. Arretxeak prostituzio egoeran dauden pertsonekin egiten du lan eta hitzaldian bere eguneroko lanean begien aitzinean ikusten duen errealitatea zein den azaldu zuen, hori ulertu ahal izateko beharrezko informazioa emanez.

Eguraldiarengatik, Nafarroako Herri Kirol Jokoen finala ez zen Berroetan egin, baina Oronoz-Mugairitik bi txapelkin bueltatu ziren Basaburuako kirolariak eta Anizko elkartearen bazkaria egin zuten.

Etxe zaharren zaharberritzeari buruzko gogoeta egin dute

TTIPI-TTAPA

Udalaren ekimenez eta Eusko Ikaskuntzaren laguntzarekin martxoaren 23an etxeen biziberritzean dauden arazo eta erronketaz aritu ziren Balleko Etxean. Joseba Otondo alkateak bailarako bizitegien %68a 1900. urtea baino lehenagokoa zela eta horrek bizitegi-parke berezia erakusten duela erran zuen, arras handiak direlako gehienak. Aldi berean bizitegien %22 inguru hutsik dagoela adierazi zuen eta datu hori bertze herrialdeekin alderatu zuen: Frantzia %6, Britainia Handian %3 edo Suedian %1,3. Hori horrela galdera hau egin zuen: «Aroztegiarekin bezala pelotazoetan oinarritzen den Marbellako eredurat begiratu nahi dugu edo Suedia alderat?».

Ondotik Julen Landa Gislaneko teknikaria mintzatu zen.

Euskal Herriko landa-eremuari buruzko azterketa egin zuen eta Baztango errealitatea horretan testuinguratu.

Donezteben dagoen Nasuvinsako bulegoko teknikariak Nafarroako Gobernuak etxeak zaharberritzeko ematen dituen diru-laguntzak aipatu zituzten.

Akitzeko udalerriko arkitektoekin mahai-ingurua egin zen. Borja Izagirre udal arkitektoaren gidaritzapean Mitxel Etxenike, Ines Laborra, Juan Mari Aleman eta Idoia Danborienak zaharberritzeko tenorean izaten diren arazoak aipatu zituzten: ondarearen zainketa eta bizigarritasun baldintzak bateratzeko dauden zailtasunak, diru-laguntzak hirietako etxeen tipologiatarako pentsatuak daudela, promozio arazoak, aurrekontu handiak...



UTZITAKO ARGAZKIA

Oihan Meoki lekaroztarra motokrosean

Oihan Meoki Lekarozko gaztea gero eta hobeki dabil motokros lasterketetan: azkenekoa, Uxuen izan zuen, martxoaren 10-11ko asteburuan, Enduro 4 Urtaroak txapelketarako baliagarria zen bigarren proba. Maila polita erakutsi zuen gazte lekaroztarrak.



Eguraldi txarra kontuan harturik, jende guti ibili zen herrian. KORO IRAZOKI

Lezeen Eguna izan dute Urdazubi, Sara eta Zugarramurdin

Bisitariak eskaintzez eta ekitaldi bereziez gozatzeko aukera izan dute

JOSEBIÑE ETA KORO

Zugarramurdi, Urdazubi eta Sarako lezeek, Lurpea, Euskal Herriko lezeen elkarteko bertze bortzekin (Astiz, Isturitz, Oinati, Zestoa eta Karrantzako) batera, IX. Lezeen Eguna izan zuten martxoaren 18an.

Lurpea Elkartek, ikusleak erakartzeko asmoz, ekitaldi bereziak antolatu eta, kasu batzuetan, sarreraren prezioa murriztu zuen (deskontuak edo 2x1 eskaintzak eginez). Era berean, zozketak ere antolatu zituzten. Oñatiko Arregi nekazal-turismoan gau baterako egonaldia eta Lurpea

elkarteko zortzi lezeak bisitatzeko sarrerak zozketatu zituzten.

Bertzalde, kondairak, herriko txokoak... bisita gidatuen bidez ezagutu eta hainbat gogoeta izan zituzten hizpide: 'Nolako izanen litzateke herri honen historia lezerik gabe? Non eginen litzukete inguruko sorginek ustezko akelarre horiek?'

Suertatu zen eguraldi txar-misterioa kontutan harturik, jende guti ibili zen herrian. Are gehiago, ekitaldi batzuk bertan behera utzi behar izan zituzten.

Akelarren biltegia txukuntzeko malobra egin dute herrian

JOSEBIÑE ETA KORO

Akelarren biltegia txukuntzeko, herritarrek malobra egin zuten martxoaren 17an. Urteak pasatu ahala tresnak pilatuak zirenez (garai bateko gaupasetarako erabiltzen zen materialak), behar bezalako garbitasun harroaldia emateko, lan handia egin behar izan zuten bertaratutako boluntarioek.

Tresna aunitz atera, sailkatu, antolatu eta txukundu zituzten eta horretaz gain, zurezko apalategiak pipituak zirenez, horiek ordezkatzeko

berriak eraman zituzten, biltegia txukun-txukun utziz.

Material aunitz izaki, ez zen lan erraza izan. Lehenik barnean zen guzti-guztia kanpoko aldera atera behar izan zuten; eta ondotik, ateratakoa garraiatzeko, Senpereko de-txeterirat bi kamioi bidaia egin zituzten. Herritarren parte-hartzeari esker eguerdirako txukun-txukuna utzi zuten gunea.

Akelarre Elkarteko kideek, boluntarioei beren esker ona adierazteko, gosaria eskaini zieten.



Hogei boluntario inguru bildu ziren. JOSEBIÑE ETA KORO

Giro polita izan zuten malobran

Hogei boluntario inguru bildu ziren eta argazkian ederki ikusten den bezala, tresna aunitz atera behar izan zituzten biltegitik. Gogotik lan egin bazuten ere, giro ederra izan zuten. 09:00etan hasi eta eguerdira bitarte lan eta lan aritu ziren eta ondotik gosaria izan zuten.

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALETAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa
www.facebook.com/ttapi.eus

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN

VENTA PEIO
GEHIAGO EMATEN DIZU

BERA (administrarritza)
31780 Bera

DANTXARINEA
31712 Urdax

IBARDIN **BEHOBIA** **LUZAIDE**
31780 Bera 20305 Iruñ 31860 Luzaide

EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE
*Abenduaren 29ª eta urtarrilaren 1ª izan ezik

Landibar

TEL. 902 210 800 / www.venta-peio.com



Agus Barandiaran Korrontzi taldeko trikitilaria. ARTXIBOKO ARGAZKIA

Ekitaldiz hornitutako asteburua izanen da apirileko lehena

Larunbatean Korrontzi dantzan ikusgarria izanen da kiroldegian Villabonako eta herriko dantzariekin

TTIPI-TTAPA

Idazleen Biltzarraren 35. edizioak ireki dizkio Saran apirilari ateak, baina astea hasi bezala, asteburua ere ekitaldiz betea izanen da.

Haurren ikuskizuna

Ortziralean, apirilak 6, 18:00etan hasita, Olhain ikastolako ikasleek hainbat emanaldi eskainiko dituzte kiroldegian: antzerkia, kantak...

Korrontzi dantzan

Larunbatean, berriz, Korrontzi Dantzan ikusgarriarekin gozatzeko aukera izanen da kiroldegian, ikastolaren 40. urteurrenaren harira. Korrontzi taldea Agus Barandiaran trikitilariak eta Villabonako Oinkari dantza taldeko 20 dantzari osatzen dute eta Euskal Herriko eta kanpoko hainbat dantzari eta dantza taldeekin kontzertuak eskaintzen ari da aspaldian. Larunbat honetan, Saran izanen dira, Zazpiak Bat dantza taldekoekin, eta denak elkarrekin 40 dantzari taldea osatuko dute. Saioa kiroldegian izanen da, 20:00etan, baina 18:00eta-

tik goiti ikastolako gurasoek taloak eta edatekoa eskainiko dituzte.

Sarrerak hainbat tokitan paratu dituzte saltzeko: Sarako Herriko Etxeko Edantegian, Pleka trinketea, Baketun eta Idazleen Biltzarrean; Senpereko Tedokafen; Zugarramurdiko Marixan ostatuan; Azkaineko Xoko Onan; Ezpeletako Doxpi/Dorraidoun; Baionako Café des Pyrénéesen; Ziburuko Atalaian eta Donibane Lohizuneko Battela ostatuan. Bortz urtetik beheitikoek sarrera urririk izanen dute, 6-11 urtekoek 8 euro ordaindu beharko dituzte eta 12 urtetik goitikoek 12 euro. Aitzinetik erosiz gero 10 eurotan izanen da sartzea.

Sarako zaldunak

Asteburua borobiltzeko Sarako Zaldunak elkarteak zaldien pusken hustea antolatu du iganderako, apirilak 8. 09:00etatik 18:00etara Lur Berri gelan izanen dira eta jatekoa eta edatekoa ere eskainiko dute. Parte hartzeko izena eman behar da, sarako.zaldunak@gmail.com-era idatzita.

Beti Gazte Elkartearen biltzarra apirilean

Beti Gazte adinekoren elkarteak urteko biltzar nagusia apirilaren 14an egingen du. Lur Berri gelan egin dute hitzordua, 12:30ean, eta ondotik, bazkaria egingen dute toki berean, Ttottek alaitua eta Sage jaun-andreak apailatua. Elkartetik erran dutenez, «erretretatu guztiak gomiatuak dira egun goxo baten pasatzera elgarrekin», baina horretarako izena eman beharko dute apirilaren 10a aitzin, Jeannot Etcheverrigarayri (05 59 54 21 31) edo Clette Ayezi (05 59 54 22 23) deituz.

Erlauntza abesbatzaren emanaldia

Herriko Erlauntza abesbatzak kantaldia eskainiko du helduden apirilaren 19an Elizan. Duela sei bat urte sortua da abesbatza eta hogeitau gizonetako eta emakumezko kantatzen dute Claude Lafitteren zuzendaritzapean. Saran ez ezik, bertze herrietan ere eskaini izan dituzte kantaldiak, baina aldi honetan etxean ariko dira eta euskal kantak kantatuko dituzte. Emanaldia 21:00etan hasiko da eta sartzea bortz eurotan izanen da. Hala ere, 15 urtetik beheitikoek urririk izanen dute.




PIERRE EZCURRA

Sara Korrika Trail euritsua

Hotza, euritsua eta lainotsua izan da aurtengo Sara Korrika Trail mendilasterketa. Lasterkariarentzat ez ziren baldintzarik samurrenak, baina hala ere, 577 lagunek egin zuten 22 kilometroko lasterketa. Gizonezkoetan, Oier Ariznabarreta izan zen bizkorrena eta emazteketan, Oihana Azkorbebeitia.



Xabier Elosegi eta Xarles Videgain, aurkezpenean. P. BASTRES



Liburuan agertzen den XVIII. Mendeko agirietako bat. P. BASTRES

XVIII. mendeko euskaraz idatzi du Xabier Elosegik

'Senpereko (eta Lapurdiko) euskara XVIII. mendean' liburuko aurkikuntzak berritzaileak direla dio Videgain euskaltzainak

PIERRE BASTRES

Baionako Euskal Museoan bere azken liburuaren aurkezpena egin du Xabier Elosegik martxoaren 22an. Bertan bilduak ziren Lapurdi 1609 elkarteko kide zombait, baita Xarles Videgain ikertzaile eta Euskaltzaina ere, liburuko sarhitzaren egilea. Lehen aldikoz ikusi ahal izan dute liburua, Paxkal Bourgoinen marrazkiez poliki edertua.

Izenburuak salatzen duen bezala, XVIII. mendeko Senpereko mintzaira da aipagai nagusia. Hala ere, lan hau ez da hiztegi bat, ez itxuraz ezta

mamiz ere. Liburuko mamia orduko notario batzuen agiriak ditugu. Nola eta non lege-testu horiek atzeman zituen, haxe zer duen adierazi Xabierrek: «2016an *Otoi çato etchera* liburua argitaratu zuten ikerlari batzuek. Liburu hartan XVIII. mendean zombait lapurtarren gutunak agertzen ziren, eta horrek lan gehigarri bat egiteko nahikeria piztu zidan. Ahetzeko datu batzuen bilat nintzela interneten, garai hartako Martin Harismendy Senpereko notario baten eskuarazko 164 agiri harrapatu nituen. Neurri

paregabeko aurkikuntza da, 13.280 hitz direlako denetarat. Multzorik handiena da ezagutzen ditugun eskuarazko aurkikuntzetarik. Orduko bizitzako goiti-beheiti guziak aipatuak dira: etxe-partekatzek (etxe partila), etxe-salaketak, ordenu edo testamenduak, adituen txostenak, enkanteak, ezkontza itunak... Harismendy-k testu gehienak idatzi dituena da, baina bertze 8 notarioen euskarazko testuak atzeman ditut. Kargu ofiziala zuten, legegizonak ziren (*Erregearen notarioa*). Honenbertzez erdaraz idazten zituzten agiri guziak. Baina eskuara nagusi zelako jendeen artean eta pertsona gehienak elbakarrekoak izaki, gehigarri franko euskaraz egiten zituzten. Adibide izigarri bezain hunkigarria atzeman dut: orduko Euskal Herriko aitonen- seme haundienetako baten ordenua, Sarako Mari Ochoa Lahetekoarena. Testamendua osoki euskaraz egi-

terat behartua zen Harris-mendy, Marik Frantsesa ez zekielakotz! Maila handienetako aunitzek ere eskuaraz baizik ez zuten mintzatzen!». Gizarteko bertze gai arruntak ezagutzerat dakartzate testuek: «Oihana ontasun inportanteenetakoa zela Senpertarrentzat bagenekien, eta oihangintzako 15 agiri aurkitu ditut. Hori esker toponomiaz, etaldeen izenez edo lexikoaz aunitz ikasi dugu. Oraingo egunetan abantsu edo arras suntsitu diren hitz zombait maiz erabiltzen ziren: bornu, erre-laxa, asent-harri, gorbela, etab...» gehitzen du egileak.

Xarles Videgainek bere eskerrak eta mirespena erakutsi ditu: «Liburu hau altxor bat da. Ezin aberatsagoa zaigu, hizkuntzaren nola historiaren aldetik. Lotan ziren hementxe berean, gure begien aintzinean kasik, alta ez genituen ikusten! Xabierrek iratzarri ditu, eta honek bertze ikertzaileeri bide bat erakutsi die».

Bigarren Hiruka'ntuz apirilaren 14an iraganen da Ibarrungo Inharrian

P. BASTRES SENPERE

Iparraldeko Hiru Probintzietako bigarren Kantu-Bazkaria antolatu du Tarrapatan elkar-teak apirilaren 14an, larunbatarekin, Ibarrun auzoko Inharria gelan. Prezioa 30 eurokoa da, liburua, zintzur bustitzea (12:00etan), bazkaria

(14:00etan) eta kopa barne. Bazkal ondoa deneri idekia izanen da. Erreserbatzeko 06 83 82 98 34 zenbakirat deitu behar da.

«Iparraldeko hiru probintzien kantu zonbeiten partekatzeko, baita elkar ezagutzeko gaitzeko parada izan daiteke!», Bi-



Hiruka'ntuz iragartzen duen afitxa.

xente Fagoaga antolatzaileetako batek aipatu duenez.

2016ko apirilaren 2an egin zen lehen Hiruka'ntuz eta orduan 300 euskal kantuzale elkartu ziren. Xiberotik autobus bat jina zen eta, Baigorri eta Garazi aldetik ere jenderik ez zen eskas. Noski, jende guztiari idekia da, eta agian, hegoaldeko kantariak ere hurbilduko dira, batez ere baztandarrak eta nafar auzoak.



Lasterkariak irteera puntuan, joan den urteko Berako Maratoi Erdian. ARTXIBOKO ARGAZKIA

Berako Maratoi Erdiaren XIV. edizioa apirilaren 15ean

Mendi lasterketaz gain, 14 eta 10 kilometrotako bi mendi ibilaldi antolatu dituzte lasterketa ikustera joateko

TTIPI-TTAPA BERA

Arrakasta ziurtatua izanen du apirilaren 15ean egingen den Berako Maratoi Erdiak. XIV. edizioa du aurtengoa eta aitzinekoetan bezala, dortsalak arrapaladan agortu dira. Manttale Mendi Lasterketa Taldeak martxoaren 12an ireki zuen maratoi erdirako izen-ematea, eta 48 orduren buruan, esku-zeuden 525 dortsalak bukatu ziren. Parte-hartzaileen artean izanen dira Berako lasterketa ezagunean marka eginak duten Oier Ariznabarreta eta Laura Sola. Ariznabarretak 2014an ezarri zuen marka (01:37:30) eta Solarena da emakumezkoetan dagoen markarik onena (02:00:00). Maila nagusian eta beteranen mailan banatuko dituzten sari nagusiez gain, bai emakumezkoetan eta bai gizonezkoetan ere, marka hobetzen duten

lasterkariak 150 euroko saria hartuko dute.

21,09 kilometroko lasterketa 09:30ean abiatuko da Toki Ona kiroldegi paretik, eta Posta, Manttale, Ibardin, Usategieta, Landagaineta, Zizkuitz, Larun, Zizkuitz, Landagaineta eta Zumalekun barna pasatu ondotik, hasitako toki berean izanen du helmuga. Nafarroako Mendi Lasterketen X. Txapelketarako puntuagarrria izanen da.

Aipatu, 14-17 urteko korrikalariarentzat lasterketa ere berreskuratu duela Manttalek

LASTERKETA 09:30EAN HASIKO DA KIROLDEGI PARETIK

eta Ibardinen izanen dute helmuga.

Lasterketa igandearekin izanen bada ere, bezperan dortsalak eta txipak hartzeko aukera izanen da kiroldegian, 17:00etatik 19:00etara. Horrez gain, 19:30ean, *Al otro lado de la cuerda* filma ikusteko aukera izanen da Kultur Etxean.

Lasterketa egunean, berriz, 14 eta 10 kilometrotako bi ibilaldi antolatu dituzte lasterketa ikustera joateko. Luzeena 08:30ean aterako da eta motza 09:00etan, biak ere kiroldegi paretik. 08:00etatik 09:00etara dortsalak banatuko dituzte kiroldegian eta lasterketa 09:30ean abiatuko da. Gutti goiti-beheiti lehendabiziko lasterkaria 11:10 aldera helmugaratuko dela espero dute antolatzaileek. Sari banaketa, berriz, 13:30ean egingen dute.

Mendi lasterketa gehiago

Berako Mendi Maratoi Erdiaren ondotik, eskualdean hitzordu gehiago ere izanen dira lasterkariarentzat: apirilaren 22an Berroetako Maratoi Erdia, maiatzaren 20an Urdazubiko Kontrabandisten Lasterketa, maiatzaren 26an Iruritan mendi duatloia egingen dute eta ekainaren 3an Euskal Herria Mendi Erronka Leitzan.



Berroetako maratoi erdia iaz.

Berroetako Mendi Maratoi Erdirako izen-ematea zabalik da

TTIPI-TTAPA BERROETA

Joan den urteko mendi lasterkari segida emanez, Berroetako Mendi Maratoi Erdia antolatu du Berroetako Herriak. Apirilaren 22an egingen dute eta kirolariak 21,6 kilometro eta 1.274 metroko malda duen lasterketa egin beharko dute Berroeta inguratzen duten mendietan barna. Bertzeak bertze, Elorregi, Saioa, Okollin, Larraldeko erreka eta Uzketatik barna pasako dira lasterkariak. Saioa izanen da ibilbideko punturik altuena, 1.418 metrotara dagoena. Ibilbidean bortz hornidura-gune izanen dituzte eta gehienez hiru ordu eta 30 minututan egin beharko dute lasterketa.

18 urtetik goitiko kirolari guztiek parte hartzen ahal dute, federatuak egon edo ez, baina antolatzaileek 300 parte-hartzaile onartuko dituzte gehienez. Izen-ematea internetez bakarrik egingen ahal izanen da, herrikrosa.eus atarian, eta apirilaren 17a izanen da izena emateko azken eguna. 22 euro ordaindu beharko dira.

Oinezkoendako ibilaldia

Mendian barna itzulia ere egingen dute. Oinezko ibilbidea 07:00etan aterako da eta horretarako hamar euro ordaindu beharko dira.



Basaburuko kirolari gaztetxoak, haur mailako proba konbinatuko eta kadete mailako sokatirako txapelekin. XAGU-LESAKA

Basaburua eta Igantzi txapeldun Herri Kirol Jokoetan

Bortziritarrek kimu mailako proba konbinatua irabazi zuten eta baztandarrek konbinatua (haurrak) eta sokatira (kadeteak)

TTIPI-TTAPA MUGAIRI

Nafarroako Herri Kirol Jokoe-tako finala jokatu zen mar-txoaren 25ean Mugairin (Ber-roetan jokatzekoa zen, baina eguraldi txarragatik Mugairin jokatu zuten). Nafarroako Ki-rol eta Gazteriaren Institutua-reakin batera antolatzen diren Kirol Jokoetan hiru mailetako

txapelketak jokatu dira: kimu mailakoak (11-12 urte), haur mailakoak (13-14 urte) eta kadete mailakoak (15-16 urte). Haur eta kadete mailetan pro-ba konbinatu txapelketa eta sokatira txapelketa jokatu di-tuzte. Kimu mailan, berriz, proba konbinatu txapelketa bakarrik. Inoiz baino parte-

hartze handiagoa izan da eta astero jendetza bildu da herriz herriko jardunaldietan.

Kimu mailako proba konbi-natuan Igantziko taldea izan zen nagusi. Haur mailako proba konbinatuan, berriz, Baztango Basaburua txapeldun izan zen. Kadete mailako pro-ba konbinatuan hirugarren izan ziren Basaburukoak, Iñi-go Aritza eta Andra Mariren gibeletik.

Sokatiran, haur mailan lau-garren izan ziren Basaburu-koak. Andra Mari 3, Berriozar eta Andra Mari 4 taldeek osatu zuten podiuma. Kadete mailako sokatiran, Basaburua izan zen txapeldun, Andra Mari 1 eta Iñigo Aritza gibelean utzita.

HERRI KIROL JOKOAK

PROBA KONBINATUA

KIMUAK

1. IGANTZI	06.48.46
2. ANDRA MARI 5	06.57.56
3. ANDRA MARI 7	07.08.40
4. ANTZOAIN B	07.27.04

HAURRAK

1. BASABURUA	08.46.57
2. ARAXES	08.57.52
3. ANDRA MARI 3	09.00.06
4. BERRIOZAR A	09.37.27

KADETEAK (LIGAXKA)

1. IÑIGO ARITZA	15 puntu
2. ANDRA MARI	14 puntu
3. BASABURUA	13 puntu
4. ANARABERRI	8 puntu

SOKATIRA

HAURRAK (480 KILO)

1. ANDRA MARI 3
2. BERRIOZAR
3. ANDRA MARI 4
4. BASABURUA
5. ARAXES

KADETEAK (540 KILO)

1. BASABURUA
2. ANDRA MARI 1
3. IÑIGO ARITZA
4. ANARABERRI
5. ANDRA MARI 2

BERROETAN EGIN BEHAR ZEN FINALA MUGAIRIN EGIN ZEN AZKENEAN

Bortziritako eskuz banakako XVII. Pilota Txapelketaren finalak jokatu dituzte

TTIPI-TTAPA ETXALAR

Bortziritako eskuz banakako hamazazpigarren Pilota Txapelketaren finalak jokatu zituzten martxoaren 17an, Etxalarko udal pilotalekuan. Zazpi kategoriatan banatuta, bortz herrietako eta inguruko bertze zenbait herritako 52 pilotari aritu dira txapelketa honetan, nor baino nor gehiago. Gehienak mutikoak baldin baziren ere, neska batzuk ere aritu dira eta horien artean, Amaiur Martinez lesakarrak txapela janztea ere lortu zuen Umeak B mailan.

Finalen ondotik, txapelak eta oroigarriak banatu zituzten eta lan horretan laguntzaile, Jon Jaunarena, Ander Errandonea eta Iñigo Martinez pilotariak aritu ziren.

Emaitzak

Hauek izan ziren finaletako emaitzak.

Tikiak: Markel Irazoki (Etxalar), 18 – Ekiotz Irazoki (Bera), 8. **Umeak B:** Amaiur Martinez (Lesaka), 18 – Beñat Azpiroz (Arantz), 16. **Umeak A:** Xanet Apezetxea (Goizueta), 18 – Aimar Otxandorena (Lesaka),



Buruz buruko txapelketako parte-hartzaileetako batzuk. JOSE MARI TELLETXEA

3. **Kimuak:** Koldo Lakar (Bera), 18 – Ekai Madariaga (Arantz), 10. **Haurrak B:** Oier Orbegozo (Lesaka), 13 – Andde Maritoren (Bera), 18. **Haurrak A:**

Beñat Andueza (Arantz), 13 – Markel Bertiz (Hendaia), 18. **Kadeteak:** Jon Pagola (Bera), 5 – Xabier Telletxea (Etxalar), 18.

AGENDA

APIRILAK 5-19

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: T. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

HITZALDIAK

LEITZA

Bertatik bertara formazio saioak

Leitzako udaletxean, apirilaren 5ean, 15:30etik 18:00etara.

BERA

Toki Onako historia eta istorioak

Irakasle eta langileen eskutik. Beralandetan, apirilaren 20an, 18:00etan.

ELIZONDO

Euskaraldia formazio-saioak

Arizkuneneko sabaian, apirilaren 21ean, 10:00etatik 13:00etara.

LESAKA

Haurren garapenaren XII. jardunaldiak

Udalaren Erabilera Anitzeko Aretoan, apirilaren 21ean, 09:00etatik 13:30era.

ANTZERKIAK

SARA

Haurren ikuskizuna

Ikastolako Erabilera Anitzeko Aretoan, apirilaren 6an, 18:00etan.

IRURITA

Ez dok hiru

Helduendako antzerki akustikoa. Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean, apirilaren 8an, 19:00etan.

BERA

Astonauta

Guraso Elkartearen eskutik. Eztegarra pilotalekuan, 18:00etan. Sarrera: 6€.

Txanpon baten truke

Haurrendako ipuin kontaketa, Ameli ipuin-kontalariarekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

LESAKA Gazte Eguna

Gisa guztietako ekitaldiak: ginkana, sukaldaritzaz-lehiaketa, poteoa... Apirilaren 7an, larunbatean.

Berako Herri Liburutegian, apirilaren 20an, 18:00etan.

DANTZAK

ELIZONDO

Bailableak

Baztango Dantzarien eta Elizondoko gaiteroen eskutik. Elizondoko Foru Plazan (euria bada Braulio Iriarte frontoian), apirilaren 8an, 12:45ean.

LESAKA

Tantirudantza

Goizean kalejira eginen dute herrian barna; arratsaldean, berriz, jaialdia plazan. Apirilaren 22an.

AZOKAK

SARA

Zaldiko pusken hustea

Urteroko merkatua. Jatekoa eta edatekoa izanen da. Lur Berri gelan, apirilaren 8an, 09:00etatik 18:00 bitarte.

BERA

Ekoiizleen merkatua eta hazien eguna

Ricardo Baroja eskolako arkupean, apirilaren 14an, 10:00etatik 13:00etara bitarte.

MENDI IRTEERAK

DONAMARIA

Mendi itzulia

Donamariako mugetan barna, apirilaren 14an, 07:00etan.

LEITZA

XL. Herri Krossa

Leitzako plazatik hasita, apirilaren 21ean, 17:30ean. Aurretik gatzetxoak.

BERA

XIV. Maratoi erdia

Bezperan, dortsal ematea herriko kiroldagian, 17:00-19:00, eta *Al otro lado de la cuerda* filma Kultur Etxean, 19:30ean (sarrera 3 euro). Berako plazatik hasita, apirilaren 15ean, 09:30ean.

BERROETA

Mendi Maratoi Erdia

Berroetako plazatik, apirilaren 22an. Izen-ematea apirilaren 17a bitarte (22€).

Oinezkoendako ibilaldia

Berroetako plazatik hasita, apirilaren 21ean, 07:00etan. Izen-ematea: 10€.

OSPAKIZUNAK

ELIZONDO

Udaberriko feria

Apirilaren 6an.

LESAKA

Gazte Eguna

Apirilaren 7an.

LARRAINTZAR

Rugby gaupasa

Baztango Rugby Taldeak antolatua. Apirilaren 21ean.

KONTZERTUAK

BERA

Bas(h) Joan taldea

Benat Achiary, Joseba Irazoki eta Julen Achiaryren eskutik. Apirilaren 6an, Kultur Etxean, 22:00etan.

ZIGA

Goizalde Abesbatza

Elizan. Apirilaren 14an, 19:00etan.

ELIZONDO

Jolasean musikala

Baztan pilotalekuan, apirilaren 21ean. Sarrerak: helduek 10€ eta haurrek 5€.

SARA

Korrontzi eta zazpiak bat

Olhain ikastolaren 40. urteurrenaren karietara. Apirilaren 7an, ikastolan,



UTZITAKO ARGAZKIA

LEITZA XL. Herri Krosa

Izen-ematea apirilaren 20ko 14:00 arte.

Apirilaren 21ean, larunbata, plazatik abiatuta, 17:30ean.

20:00etan.

SARA

Erlauntza Abesbatzaren emanaldia

Apirilaren 19an, 21:00etan.

LESAKA

Julian Gayarre abesbatzaren kontzertua

Apirilaren 21ean, 19:30etako mezaren ondotik, San Martin de Unx elizan.

IKASTAROAK

ZIGA

Teknika metamorfikoa langai

Mari Carmen Boiraren eskutik. *Apirilaren 9tik 12ra, Etxezurria landetxean.*

DONAMARIA

Talo tailerra

Sinadura bilketaren harira. *Apirilaren 13an, 19:00etan.*

IBILALDIAK

SARA

Sara-Ainhoa bizikleta-martxa

Frontoitik abiatuta, apirilaren 15ean, 08:30ean. Izen-ematea: 07:30ean.

Sara oinez

Plazatik abiatuta, apirilaren 22an, 06:30ean.

ERAKUSKETAK

OIEREGI

Argazki-erakusketa

Bertiz Natur Parkeko Pedro Ciga Aretoan, apirilaren 8ra arte.

ELIZONDO

Emozioak koloretan

Bortz emakumeren lanak ikusgai. *Arizkunenean, apirilaren 8ra arte. 17:30etik 20:00etara (asteburuan goizez).*

LESAKA

Sanferminetako azalen erakusketa eta bozkaketa


Kultura eta Turismo Bulegoan, apirilaren 8ra bitarte zabalik.

Nire aukera

«Egiak entzun nahi ez dituztenei buruko mina eragiten diegu»

AITOR IBARRA ETSIAKEROAK TALDEKO ABESLARIA

Lekeition sortu eta «azken zortzi urteetan» Goizuetan bizi den «naufrago eroa, pirata ameslaria, geldirik egoten ez dakiena» da Aitor Ibarra. Hamazazpi urte inguru zituela, sorterriko Gaztetxean hartu zuen lehendabizikoz mikrofona eta geroztik eskuan darabil, horren bueltan eraiki duelarik bere zaletasun nagusia: «mendi eta urtegietan barna aske abestea maite dut», han eta hemen «gaztetxeak mugiaraztea». Gaztetxeetan barna



UTZITAKO ARGAZKIA

«TALDE ERRADIKALAK ERROTUZ, BALADEK INDARRA GALTZEA NAHI NUKE»

eginiko bira batean Goizuetan ezaguturiko neska bat izan zen bizitokia aldatzeko, hutsa eragiten dioten Lekeitioko «olatuak eta horien zarata 'Ibero'rekin, belarrezko hondartzarekin, ordezkatzeko» arrazoi nagusia. 2016an *Naufragoak*, lehen diska, «Durangoko azokarako» sortu zuten, eta horren bueltan 25 kontzertu eskaini zituzten: Goizuetan, Iparraldean eta Euskal Herriko beste hainbat

herriak bestetan ez ezik, Kataluniaraino hedatu zuten «punk hard-core eta metal nahasketa» ardatz dituen musika: ahots abiadura biziz, raparen trebetasunez, gitarren ziztu bidez, baxuaren txinpartaz, bateriaren kolpe zorrotz eta latzez zein perkusioetan bizipozaren kontrapuntuz hornitutakoa. Mezua «indarrez bideratuz eta egiak entzun nahi ez dituztenei zuzenduz, batzuei buruko mina eta besteei gozamaena eraginez» ibili ziren. Berriki, bigarren diska kaleratu dute: *Lur errebeldean*. Goizuetako gaztetxean, sorturiko kantak biltzen ditu, «ondotik Mutrikun grabatu zirenak, lagun handien laguntzaz». Diskan bertan agerikoa da «grabaketa aldetik azken hogeita hamar urteetan gertatu diren hobekuntzak, puntako soinu eta ekoizpenak sortzeko bitartekoen garapena». Aitzitik, hortan irabazitakoa «beste gauza batzuetan galdu» dela uste du: «non daude lehendabiziko fila gogor horiek? zoramenez gozaten zuten entzuleak? herriz herri kontzertuetan ibiltzen ziren herritarrak?». Itzulera hori da amesten duena: «talde erradikal eta sendoak errotzen diren heinean, baladek indarra galtzea nahi nuke».

PLAZAN BAZAN



Egilea: Garbine Ubeda (Aiarri)



ZINEMAN



Antza denez, zinema honetan ematen ari diren filma ez da aski interesgarria, inork ez baitio begiratzen... Baina, tira. Begi-bistakoena alde batera utzita, zenbat ezberdintasun ikusten dituzu bi irudi hauen artean, 7, 9, 17...? Zenbat?

INTERNETEN ERE BAI ! <http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



ITZALA


Zein da irudiaren itzal zuzena?



ESTROPEZUA



Estropezu egin duen emakumeak oinetakoa apurtu du, eta horrez gain, bi gauza desagertu zaizkio eta berri bat agertu. Zeintzuk?



PUZZLEA

Zein da puzzlea osatzeko behar dugun pieza?



GOGOA NON...

Jarraian zer datorren asmatzen baduzu, esaera zahar ezagun bat osatuko duzu.

- Gogoa non, begiak zoro eta bihotza edonon.
- Gogoa non, zu beti bertan.
- Gogoa non, lagunik ezin aurkitu inon.
- Gogoa non, normalki Amoroton.
- Gogoa non, poza beti da on.
- Gogoa non, lanak hor konpon.
- Gogoa non, zangoa han..

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

ELIZONDO. Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 55.000 euro. ☎ 646 774 117.

ITUREN. Hainbat neurritako apartamentuak hagitz prezio salgai. ☎ 948 451 337 / 667 275 013.

ERRENTAN EMATEKO

ALMUÑECAR hirian, Granadako kosta tropikalean, etxebizitza errentan emateko martxo 2. hamabortzaldia, maiatza eta ekaineko 1. hamabortzaldian. Pertsona bat edo birentzat egokia. Hondartzako lehen lerroan, igerilekua eta bista ederrak. Guztiz ekipatua, aire egokituarekin. ☎ 658 943702.

ERRENTAN HARTZEKO

ELIZONDO. Lanean dagoen bikote batek pisua errentan hartuko luke. ☎ 644 882115.

ELIZONDO edo **INGURUAN.** Lanean dagoen Elizondoko bikote batek pisua errentan hartuko luke. ☎ 626 834109 / 660 847154.

GARAJEAK/LOKALAK

SALGAI

DONOSTIA. Garajea salgai. ☎ 678 855056.

ERRENTAN EMATEKO

LESACA. Albistur karrikako 43. zenbakian, lur azpiko bajera errentan emateko. ☎ 618 962937.

LESACA, Bittiria karrikan, lurpeko aparkalekua errentan emateko. 20 euro hilabetean. ☎ 636 847510.

LANA

ESKAINTZAK

LESACA. Batzoki ostatuan aritzeko langile bat behar dute. Nahiago Lesakarra bada eta bertze lanik ez duena. Lanerako gogoia izatea nahi dute. ☎ 642 941481 / 695 669831.

ELIZONDO. Beatriz ongizate zentroan lanaldi erdiz (arratsaldez) lan egiteko lagun bat behar dute. Beharrezkoa da estetika ikasketak izatea. ☎ 636 142890.

BAZTAN aldean, bi langile behar dituzte, mekanikari eta txapista gisa aritzeko. ☎ 616 729952.

IRUN. Esperientzia duen zerbitzaria behar dute asteburutan estra moduan lan egiteko. ☎ 650 173031.

DANTXARINEA. Mikelenborda jate-txean sukaldaria behar dute. Eguneko lana urte osoan. ☎ 948 599045 / 690 388134.

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabean erantzukizunik

LESACA. Zerbitzaria behar dute asteburuetan, udako oporraldietan eta bajak kubritzeko. ☎ 620 700964 / 636 267369.

BERA. Esperientzia duen kamioi mekanikaria behar dute asteleheneetik ortziralerara aritzeko. ☎ 679 892032.

ESKARIAK

Sukaldaritzako ezagutza duen **gizon arduratsua** lan bila. ☎ 644 771861.

Adinekoak edo haurrak **zaintzen** edo **garbitasunean** aritzeko lan bila. ☎ 644 860944.

Adinekoak edo haurrak **zaintzen** edo **garbitasunean** aritzeko neska lan bila. Orduka edo interna moduan aritzeko prest. ☎ 644 963709.

Adinekoak **zaintzen** edo **garbitasunean** aritzeko lan bila. Esperientziaduna adinekoak zaintzen. Inter-

na moduan edo orduka lan eginen luke. ☎ 631 379865.

LESACA. Garbitasuna egiteko, esperientzia duen emakumea lan bila. ☎ 669 180779.

Esperientziadun emakumea **Bera** edo **Lesaka inguruan lan bila:** portalak garbitzen, etxeko lanak egiten edo adinekoak zaintzen ariko litzateke. ☎ 678 903294 / 948 630914.

Adinekoak edo umeak **zaintzen, ostalaritzan** eta **garbitasunean** esperientzia duen emakumea lan bila. ☎ 635 296717.

Mantentze-lanetan esperientzia duen **mutila lan bila.** Bertze lan arloetan ere lan egiteko prest. ☎ 604 239344.

Adineko pertsonak **zaintzen** eta **ostalaritzan** esperientzia duen emakumea lan bila. ☎ 666 337495.

12 urtez adinduak zaintzen ibili den emakumea lan bila. Orduka edo interna moduan. ☎ 682 808812.

Adinekoak edo haurrak **zaintzen** edo **garbitasunean** aritzeko lan bila. ☎ 632 213964.

Esperientziadun emakumea adinekoak edo haurrak **zaindu** edo **garbiketari** aritzeko prest. ☎ 688 418121.

ZERBITZUAK

KLASE PARTIKULARRAK

LESACA. Klase partikularrak ematen ditut: matematika, fisika, kimika, ingelesa, hizkuntzak... unibertsitateko maila arte. Talde murriztuak. Esperientzia zabala klase partikularrak emateko. ☎ 605 762880 (Aitor).

PSIKOANALISTAK

ROSA BELZUNEGI
PSIKOANALISTA

Kontsultarako eskatu ordua

☎ 948 272 011 (IRUÑA)

☎ 948 580 975

Jaime Urrutia, 42-2.D **ELIZONDO**

MOTORRAK

SALGAI



Peugeot 308 HDI Sport autoa salgai, 110 CV. Argi automatikoak eta abiaduraren kontrolarekin. Bizona klimatizagailua. Laino-argiak, eta hagu edo llantak alineatuta. 2010-eko maiatzekoa. Beti garajeon egondakoa da eta egoera hagitz onean dago. Aukera paregabea. Prezioa: 6.800 euro. ☎ 696 290759.



Seat Toledo autoa salgai. Egoera onean. Motorra berritua, korrea eta uraren bomba aldatu berriak. 2.000 euro. ☎ 646 517549 / 659 537248.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,35
- 1.koa 4,13
- 2.koa 3,93

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,37
- 1.koa 4,23
- 2.koa 3,83

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 160,00
- Idixkoak 200,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 140,00
- Idixkoak 185,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,29/3,39
- Zaldi-behorrak 1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 6,20/6,80
- 8-10 kilokoak: 5,20/6,00

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 63 €

Zerri gizona 1,156 €

Zerramak 0,620€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (martxoaren 16tik 23ra bitarteko prezioak)

ZUBIETAKO UDALA

Herriko Ostatuaren errentamendua

Zubietako Udalak 2018ko martxoaren 5eko osoko bilkuran erabaki zuen lehiaketa publikoa egitea, Zubietako Kale Nagusian dagoen Herriko Ostatuaren taberna, hostel eta jatetxe zerbitzua errentan emateko, besteak beste, baldintza hauei jarraikiz:

- Errentamenduaren iraupena: 2 urte, gehiago luzatzeko aukerarekin.
 - Urteko errenta: euro 1 gehi BEZa. Horixe izanen da hasierako prezioa.
 - Lehiaketan baloratuko dira ustiapien proiektua eta eskaintza ekonomikoa.
 - Eskaintzak aurkezteko epea: 2018ko apirilaren 12ko 11:00ak arte. Eskaintzak Zubietako Udaletxeko idazkaritzan aurkeztu behar dira, baldintza administratioben pleguan adierazten den gisara.
 - Behin-behineko fidantza: 1.000 euro.
- Baldintzen agiria interesdunen eskura dago udal idazkaritzan eta web orrian: www.zubieta.eus.

Zubietan, 2018ko martxoaren 19an
Alkatea, Ernesto Dominguez Olea



2. eskuko bizikletak



Specialized
800€



BH
1.800€



Orbea
1.200€

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com



SANTESTEBAN TAILERRAK



7.900€

LAGUNA COUPÉ INITIALE 3.0 DCI 235 CV
2009 urtekoa | 200.000 km
Automatikoa. Extra guztiak

8.300€



8.300€

DOKKER AMBIANCE dci 90 CV
2015 urtekoa | 19.100 km

11.950€



11.950€

LATITUDE PRIVILEGE 2.0 DCI 175 CV
2011 urtekoa | 81.500 km
Automatikoa. Extra guztiak

Leitzako errepidea **DONEZTEBE**
T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es

DENETARIK



SALEROSKETAK

Rotabatorea salgai, berri-berria estreinatuta gabea. Aukera ona. ☎ 620 997794.

Altzairuzko sei fregadera salgai, 1,73 metro x 34 cmko neurria. Forma borobila. ☎ 948 585036.

ANIMALIAK

DENETARIK

Arratoi zakurkumea hartuko nuke. ☎ 627 086266.

OPARITZEKO

Bi urteko **setter ingeles** txakurra oparitzeko. Hiru koloretakoa, oso polita eta lasaia. Txipa eta txerto guztiakin. ☎ 628 055178.

HERIOTZAK

- **Josefa Mitxelena Mitxelena**, Lesakakoa, martxoaren 17an.
- **Javiera Arrijuria Jaramillo**, Lekarozkoa, martxoaren 18an, 93 urte zituela.
- **Juan Joxe Apezetxea Arozena**, Goizuetakoa, martxoaren 18an, 72 urte zituela.
- **Luis Mari Iriarte Iparrea**, Iruritaakoa, martxoaren 18an, 67 urte zituela.
- **Jose Agustin Mitxeltorena Atxa**, Doneztebekoa, martxoaren 19an, 83 urte zituela.
- **Juana Etxaide Aleman**, Iruritaakoa, martxoaren 21ean, 85 urte zituela.
- **M^a Eugenia Migeltorena Migeltorena**, Donamariakoa, martxoaren 21ean, 92 urte zituela.
- **Marie Coppens**, Sarakoa, martxoaren 10ean, 71 urte zituela.
- **Carmen Garcia Velez**, Elizondokoa, martxoaren 26an.
- **Enrike Erregerena Bera**, Iturengo, martxoaren 28an, 61 urte zituela.

tanatorios

IRACHE

24 ORDUKO TELEFONOA
948 637 404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK



BORTZIRIAK | MALERREKA | BERTIZARANA
BAZTAN | ZUGARRAMURDI | URDAZUBI

24 ORDU | 365 EGUN
948 48 95 50
info@funerariabaztanbidaso.com

BAZTAN BIDASOA
Ehorzketa Zerbitzuak

ESKUALDEAN ETXEO ZERBITZUA



Betiko taldea zu laguntzeka

**BERAn San Jose Beilatokian
Laister, tanatorio berriak DONEZTEBE eta ELIZONDON**

KONTATU KONTUAK



Errigorako sarituak. Errigorako bi produktu sorta zozketatu ditu Ttipi-Ttapak ERRAN.EUS aplikazioa deskargatu eta pantailazoa bidali dutenen artean. Sarituak argazkian ageri den Ana Aroztegi (Amaiur) eta Mari Karmen Goñi (Elizondo) izan dira. Zorionak bie eta eskerrik asko parte hartu duzuen guztioi! Erne ibili aitzinerago zozketa gehiago ere egingen baititu Ttipi-Ttapak ERRAN.EUSeko erabiltzaileen artean!

SORTZEAK

- **Alaia Bazterrika Elizalde**, Doneztebekoa, martxoaren 15ean.
- **Alegria Bayona Brücker**, Goizuetakoa, martxoaren 17an.
- **Enara Urtxegi Rodrigo**, Igantzikoa, martxoaren 11n.
- **Antton Sathicq**, Sarakoa, martxoaren 10ean.

EZKONTZAK

- **Karlos Zarzuelo Gartzia** eta **Miren Itxaso Guerrero Madrid**, Donostiakoa eta Barakaldokoa, martxoaren 17an, Lesakan.
- **Angel Pelarda Fernandez** eta **Goreti Anzizar Iriarte**, Iruñekoa eta Sunbillakoa, martxoaren 24an, Sunbillan.
- **Karlos Aretxabaleta Ormaetxea** eta **Ainhoa Etxazarra Arkotxa**, Getxokoa eta Bediakoa, martxoaren 9an, Goizuetan.

SORTZEAK ETA EZKONTZAK


Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu edo info@ttipi.eus helbidera idatzi beharko du.

BEILATOKIAK ELIZONDON ETA BERAN
Zerbitzuak Baztan, Beran eta Bortzirietan

URTE OSOAN 24 ORDUKO ZERBITZUA

T. 948 05 90 90
izarratanatorio.com

URTEBETETZEAK



Sunbillako **Iraitz** eta **Iraia Sarratea Arretxeak** apirilaren 13an 4 urte eta martxoaren 31n urte bat beteko dituzte. Zorionak etxekoan partetik. Muxu aunitz!!



Urte askoz zure 22. urtebetetzean, Leitzako printzesa! Urte pila latza dira elkar aguantatzen egoteko ba, e? Egun ederra pasa eta kontuz zimurrekin!



Enaitz Iparragirrek 9 urte bete ditu martxoaren 31n. Muxu haundi bat Sunbilla eta Berako Sunbilien partetik. Bete bezain alai eta borrokalaria segi!



Xuane eta **Eñaut Aitzuguren Iratzoki** beratarrek 4 eta 2 urte beteko dituzte martxoaren 23an eta apirilaren 22an. Zorionak eta aunitz urtez etxekoan, ataxi eta amaxien eta bereziki Gorka, Julene eta Maddalen lehengusuen partetik.



Kemen Garro Ordoki lesakarrak 7 urte bete ditu martxoaren 23an. Aunitz urtez gure *monono xarrari* familiaren partetik. Milaka muxu!



Irai Rekondo Rico gure etxeko txikiak lehenengo urtea beteko du apirilaren 3an. Zorionak aita eta amatxoren partetik.



Aurtizko **Xabat Mindegia** apirilaren 10ean 2 urte beteko ditu. Aunitz urtez familia osoaren partetik eta bereziki Leiane eta Naikari lehengusinen partetik.



Zorionak **Fermin!** Zeruntako osaba eta izebaren partetik, besarkada eta muxu haundi bat!



Saioa Urroz Torrecillasek 3 urte bete zituen martxoaren 24an. Zorionak guraso, amaxi eta osaba-izeben partetik! Muxuak!

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak!

Internet
<http://erran.eus/>
zorionagurrak helbidean sartu zorion-agurra. Egun berean edo hurrengo lanegunean argitaratuko da webgunean baita hurrengo Ttipi-Ttapa aldizkarian ere.

Bulegoan eta postaz
Etor zaitetz Ttipi-Ttaparen

bulegora edo bidali argazkia eta testua gutun-azal batean: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA.

Prezioa
Argazki soila: 5 €; bikoitza 10 €; **Ordaintzeko:**
(1) Bulegoan, dirutan.
(2) Hegoaldetik postaz 0,55 €ko 10 edo 20 seilu.
(3) Iparraldetik postaz 5 edo 10 €ko txekoa.
(4) erran.eus bitartez.

BORTZIRI GARRAIO TXARTELA



Joan-etorri TARIFA

ABIAPUNTUA	HELMUGA	HELDUA
DONOSTIA-IRUN	BERA	5,18€
DONOSTIA-IRUN	LESAKA	6,08€
DONOSTIA-IRUN	ETXALAR	7,08€
DONOSTIA-IRUN	IGANTZI	7,68€

La Burundesa eta Euskotren enpresek **BORTZIRI garraio txartela** eskaintzen dute, **Topo trenan** eta **La Burundesa autobusean erabiltzeko** balio duena.

BORTZIRI txartela eskuratzen duen bidaiariak aukera izanen du bidaiatzeko garraio txartel horrekin Irungo Topo tren-geltokian sartuta (Colon pasealekua) Lasarte eta Hendaia bitartean, betiere La Burundesa autobusarekin konbinatuz.

Garraio txartel honekin bidaiariak joan-etorria egiteko modua izanen du Lasarte-Hendaia bitarteko Topo trenaren geltokien artean eta La Burundesa autobusak Bera, Lesaka, Etxalar eta Igantziko Benten artean dituen geralekuen arteko ibilbideetan.

Garraio txartel honek **egun baterako balio du**. Hau da, txartela erosten den egunetik kontaktzen hasita hurrengo eguneko 23:59ak bitarte.

Informazio gehiago www.laburundesa.com, www.euskotren.es edo **948303505** telefonoan.



LA BURUNDESA

Eska ezazu lehiatilan!!

euskotren

Ttipi Txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T. 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

706 aleko
irabazleak >



ZOZKETAK

Martiko - Lote bat

Juan Bautista Ansorena Huitzi | LEITZA

Irrisari Land - 2 sarrera

Bittori Telletxea Maia | BERA

Donostiako aquariuma - 2 sarrera

Jaione Zabalo Juantorena | EZKURRA

Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera

Santi Belarra Telletxea | DONEZTEBE

Buatxabal - Kamiseta bat

Nekane Zestau Polo | ELIZONDO

Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera

Igone Sarratea Gamio | OROÑOZ-MUGAIRI

Elkar - Liburu bat

Eneko Lekuona Lujanbio | LEKUNBERRI

Elkar - Liburu bat

Lourdes Mitxelena Lasaga | IGANTZI

2 sarrera



IRRISARRI LAND
www.irrisarriland.com

2 sarrera



ZUGARRAMURDIKO LEZEAK
www.turismozugarramurdi.com

2 sarrera



DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es



2 sarrera helduentzat

ONDDO TA PUNTO
www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

LA RHUNE
www.rhune.com/eu



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

2 sarrera



BURDINBIDEAREN EUSKAL MUSEOrako
eta lurrin trenean bidaiatzeko
- Sarrera bat familia bakoitzeko
(gurasoak eta seme-alabak)

euskotren 
www.euskotren.eus

LA GUNTZAI LEAK



www.baga-biga.eus



www.lesakakoudalkiroldegia.com